

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
80n. ZENBAKIA
AZILLA
1984

Machinista



**ASKOTARIKO BASERRIAK ANTXIÑATIK
EUSKALDUNEN BIZILEKUAK**

AITAK ESANA

Irailako ZER'en Ibañez Karlos'ek iñoskunez, 1903 gneko Urrian, Begoña'ko Ama Birjiña'ren eguna burruka negargarriai esker, ospetsu egin zan Bilbo'n. Eta bere aitaren aboz jakiñik, egun odoltsu are-tako istilluen zertzelada garrantzitsuak emon euskuzan.

Nik be, gure aitak egun orretzaz esandakoak edestuaz, gure erriaren kondairarako zeozer geiago ekarri gura dot gaur.

Gure aitak 27 urte egin barriak izango ebazan orduan. Egun gomutagarri ori, besperan berari jazorikoagaz asten jakun edestuten: Arenaleko zubitik joiala bera, orduko bilbotar ezkertiar ospetsu batek aurkiturik, gazteak aitaturik auxe esan ei eutson: "Orraitiño, ez dira joango biar Begoña'ko ibildeunera?" Gure aitak, baietz, joango zirala erantzun ei eutson, sendo. Eta orduan besteak: "Pues entonces, ¡desgraciados!" Gure aitak "desgraciados" aren tonu garratz-zemaikorra ez eban aaztuten eta biaramoneko jazoera negargarriekin lotzen eban. Jaun aren abizenaz ziur-ziur ez nagolako ez dot izentatzen: osagillea, gazte ezkertiarren buru lez agertzen ei zan eta berak ekarri ei ebazan ordainduta, Begoña'ko Ama Birjiña'ren eguna zikindu ta odoldu eben edo nastea sortzen lagundu eben kanpotar gazte ezkertiar areik.

Aitak kontetan euskun, istilluak sortu ziranean, tiroak, arriak eta jende bildurtuaren zalaparta artean, Ama Birjiña'ren estandarte eroian "Maria'ren Alabea", tinko, bere bidean zuzen, adoretu joaten jarraitu ebala, ezeri jaramonik egin barik.

Gure aita, istilluak Arenalean artu ei eben: iskanbilla ain izugarria izan ei zan ze, berak ango kafetxe baten aurrean egoan maitxo bat arturik, aldeztu ta eraso batera egin bear izan ebala.

Berak ez euskun besterik esaten. Ordurako baiña, bera JEL'kideen artean guztiz sartuta ebillan. Eta euzkotar-españar zaleek eta españarrek sorturiko indarkerizko burruka ankerra ikusrik, minduta, bere senetik urtenda, "il bedi España" arek urten bear izan eutson. Orduko abertzale batzuk be, urteak barru eskandaluz beterik deadar orren barri emoten ei eben.

Orren barri guri, aita il ondoren eldu jakun. Eta baita lenengoz uste izan be, bere anaien batek barriketan asmaturiko zerbait ez ete zan. Baiña diñodanez, orduko abertzale zarrekandik be jakin izan dogu. Oraintxe ildako Odon Apraiz jaunak be, uda onetan bertan, aitutzen eban Euskaltzaindia sortu aurretiko billera bat dala ta. Orrek, eta orain Ibañez jaunak edesturikoak loturik, birao baltz ori gure aitak orduntxe lotako ebala uste dugu. Orixe da guk ataraten doguna beintzat.

Eskerrikasko Ibañez jauna! Guk bakoitzak gure aurretikoek esanda dakiguzantxoak kontaurik, benetako edestitxoa egin al izango litzake. Eta bear bada, beiñepein batzuk, asmauriko edestirik zertan idatzi bere ez leukie izango.

BELAUSTEGIGOITIA'TAR MAITENA'K

EUSKALERRIAREN ERAKUNDEA

ASPALDION

Erri edo aberri bakoitxak bere erakundea edo jaurketarako, gobernurako, maillak aukeratzeko eskubide osoa dauka, baiña aspaldiko urteetan Euskalerrriak ez dau izan olako eskubiderik: Beste batzuk eratu dabe gure ordeztu eta euren erara.

Orregaitik ez da arritzeko gauzea zerbait egiteko eskubidea etorri jakunean, euskaldunak nora-ezean ibiltea. Orixe jazoten jaku aspaldion. Baiña gauzeak garrantzi aundia dauka. Gure euskaltasunaren zati bat ortxe jokatzen dogu.

LEN ZER?

Erdi-Arorantza jotzen ba'dogu, orain bosteun bat urte, erakundeak ez eukan garrantzi aundirik: Sendiak errian eta erriak zugazpean edo eleizetan ordezkarien bitartez batu ezkeron naikoa zan.

Olako batzarretara deia egiteko, mendi-gaiñeetan sua biztutea zan naikoa.

Orduan ez zan agintari bakarrik bear. Ondo genkian euskaldunak giñana, izkuntza lekuko zala, eta ez zan geiagorik bear: Gudaldiren batzutan alkar laguntzea naikoa zan. Eta iñoz alkarren aurka guda egin be bai.

GAUR ZER?

Gaur laterri ondo batu ta alkartuen artean bizi gara eta Euskalerrria Euskalerrri izatea nai ba'dogu, euskaldunak guztiak alkartu eta geure nortasuna zaindu bear dogu.

Orretarako nora eldu bear genduken ondo dakigu: Euskalerrri alkartu bat Iparraladea ta Naparroa barruan dirala eta erri guztiaren buru dan agintari bakar bat, gution artean eta aldirako aukeratua.

Baiña bearrezko gauzea ete da ori, gero?

Gaur baietz esan lei, gizarte-giro onek ori barik nekez onartuko leuke gure erri-arteko nortasuna.

OIÑARRIA NON?

Baiña agintaritzak bakar orrek, euskal-senekoa izan gura ba'dau, oiñarri sendoa bear dau eta oiñarri ori sendiak, udalak eta eskualdeak dira: Jaurlaritzak oiñarri ori sendotzen eta bizirik zaintzen egin bear dau bere alegiña, eta orretarako udaletako ta eskualdeetako ondasunak, oiturak, euskalkia izakerea eta dana zaindu bear dau. Orrelan izan ezkeron ez legoke "jakobinismo"aren arriskurik, orrelan euskaldunen erri-agintaritzak edo demokrazia bere senean eta egokiro biziko litzake.

Eskualde alkartuak ala laterri-alkartuak izan bear dabe gure lurraldeak? Izenak izen dira, baiña izana laterri batuen antzekoa dala, esan lei, egokiena.

DAUKAGUNA

Asko aurreratu dogula jakin arren, oraindiño gure giroa samiña da. Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba batuta geiago, alkartuta baiño, eta Naparroa ta Iparraladea, zori txarrez, oso urrin gure alkartasunetik.

Bide luzea egiteko daukaguna, lan aundia, esku-artean darabilguna! Baiña nora goazen jakin barik egin bear ez dogun lana!

Amets uts, "utopia" biurtu ete jaku gure Euskalerrria? Ala oraintsu baten batek esan dauan lez, ez ete dago beste egirik ametsak baiño?

EUSKALERRIA TA "DECAMERON"

ITALIERA EREDU

Munduko Elertiaren barruan libururik ospetsu-
netarikoa da guztiok ezagutzen dogun "Decameron"
Boccaccio'ren liburua, 1.350n.urte inguruan Floren-
tzia'n argitaratua. Izurrite-aldi baten amar lagun
doaz bakar-lekura biziteko eta an amar egunean
egongo dira. Bakoitzak egunean ipuin bat edesten
dau eta orrelan liburua osotzen dabenak 100 ipuin
dira.

Dekameron'ek indar aundia izan eban Italiera
batzerakoan edo Italia'ko izkuntza batua sortzeko
orduan. Olako liburu irakurgarria eta ainbeste zabal-
dua indar aundikoa izan bear izkuntza idatzia orduan
ziran euskalkietatik zein izan ebazteko orduan. Ez ete
zan ori bide egokia izango euskerearen batasun ida-
tzia lortzeko?

Baiña italiarrak izkuntza batua sortzean beste
jarraibide eder bat be emon euskuen, atxeak kentzea-
ren jarraibidea. Italiarren izkuntzak izkelki guztietan
atxe asko ta ugariak eukazan eta orrelan izkuntza
idaztea gaitxa zan. Zer egin eben? Atxe guztiak ken-
du oneixek izan ezik: ho = dot, hai = dozu, ha = dau,
hanno = dabe. Ortik kanpora ez da erabilten
arridura-itx batzutan eta ce-ci = txe-txi izan bearrean
che-chi =ke-ki izan daitezcan, baiño. Beste itzak, esa-
terako abbiamo = genduan, ora = ordua, istoria =
kondaira, eta ainbeste, atxe barik idazten dira. Iraka-
tsi ederra euskaldun atxe-zaleentzat! Euskereak izan
eban idazkera garbia ta burubide zuzenekoia izan
ondoren, zer ekarri dauskuen!

GAZTAIZ'KO MENDIA

Baiña beste bat zan idaz-lan onen elburua.

Boccaccio'k bere liburu garrantzitsu ta gogoan-
garri onetan ez daukaz aitzuta euskaldunak eta guri
buruz zer diñoan gogoratu nai dot labor-labor.

Zortzigarren ekinaldian, irugarren elebarrian,
Kalandrino'k arri berezi batzuk nongoak diran
itauntzen dau eta Maso'k olan erantzuten dautso:

"Olako geienak Berlinton'en, euskaldunen
lurraldean, Bientegozes inguruan dagoz. An matson-
doak lukainkez lotzen dabez eta antzar bat emoten
dabe diru baten truke eta arate bat geigarri. Mendi
aundi bat dago bertan, dana gaztai birriñezkoa eta
mendi orren gaiñean makarroiak eta kopauak baiño
besterik egiten ez dakienak bizi dira. Oneik kapoien
saltzan egosten dabez eta andik bera bota, eta zorio-
nekoa geien artu al izaten dauana! Andik urrean erre-
katxu bat doa, onek ardauro gorri gozoa daroa baiña
ur-tanta bat be ez.

A bai izango dala lur ona, esan eban Kalandri-
no'k, baiña esan egidazu: Zer egiten dabe orrelan
egositako kapoiakaz?

Maso'ren erantzuna:

—Euskaldun guztiak jaten dabez olakoak.

Orduan Kalandrino'k Maso'ri:

—Lurralde aretan izan zara zu iñoz, zori onez?

Eta Maso'k:

—Milletan izan ez ba'naz baten be ez!

Orduan kalandrino'k esan eutson:

—Zenbat legua dagoz emendik ara?

Maso'k:

—Mille baiño geiago. Gau oso bat igaroko zen-
duke zenbatzen.

Kalandrino'k orduan:

—Olan dala Abruzoak baiño arago dago.

Maso'k:

—Bai-Zeuk nai dozun beste geiago (...).

TXARRIA TA BASERRITARRA

Txarriaren ipuiña entzutean irakurle bateri baiño geiagori etorriko jakon burura Fernando Amezketarraren ipuiña. Antz-antzekoa da, izan be, Boccaccio'k Dekameron'eko zortzigarren ekiñaldian, seigarren elebarrian dakarrena:

—Errukarria ni! Txarria ostu dauste!

—Arrigarria benetan! Oraingoan jakitun agertu zara!

—Baiña benetan diñotzuet!

—Bai, zuk orrelantxe esan bear dozu, eta abots aundiaz esan egiaren antza izan dagian.

Ipuiñak zelan munduko jakintzen artean banatzen diran! Gogoratu, esaterako, Tartalo ta Polifemo. Gogoan daukat, baita, Lekeitio'ko Modesto Robles izeneko bateri, orain 44 urte, entzun neutson ipuin luze bat, eta Aprika'ko mixiolari batek “Mundo Negro” aldizkarian bertako ipuin lez edesten dau.

EUSKALDUNEN ERREGINA

Zortzigarren ekiñaldian, bederatzigarren elebarrian, sorgin-giroko janaldi ta jai-aldi aundi bat agertzen da, nigromantzia edo aztukeria bitarte dala eta jai orretan, munduko beste lurralde batzutako aundikien artean, Euskaldunen erregiña agertzen dausku Boccaccio'k, Barbanikuen andreagaz, Sultan'aren emazteagaz, Osbec'eko Kaiser-Andreagaz, Normilea'ko txatxaradunagaz, Berlinzona'ko Une-Erdi'gaz, Narsia'ko Arlankiñagaz... batera, antxe egozan munduko erregiña ta andra ospetsu guztiak, Indietako Jon abadearen mirabe tximurtuagaz batera. Eskerrik asko esan bearko dautsogu Boccaccio'ri Euskaldunen Erregiña orresbestean ospetsutzat artu daualako. Napparroa'ko erregiñaren bat ete dau gogoan? Ala

here asmamenezko andra amesgarriren bat ete da “Euskaldunen Erregiña” ori?

Dana dala, jakingarri oneik aletxu bat izan daitkez Euskalerrria jakintza-zaillean erri itxia izan dala esaten debenen irakatsiak guzurtatzeko. Eta olako jakingarri asko eta asko ekarri leiz, zalantza barik.

Eskalerrria Europa'ko ta Afrika'ko jakintzen bide-kurutze baten bizi izan da eta bere jakin-gaiak zabaltzen eta beste batzurenak artzen ona: Gure jakintzaren gaiak ludi osora zabaldu dira eta lurbira osoko jakin-gaiak be izan dabe sarritan euren ikutua gure artean.

OLAZAR'tar Martin'ek

UNAMUNO GOGORATUZ

Ospakuntza aintzagarriz zure irudia
zure izeneko enparantzan jarri dabe
erdal izkuntzaren eredu eta zutabe
zure Bilbo'k eskeñitako gomutakia.

Zure idazle lana munduratu da zabal,
aundien artean aundi, ezilkor izenaz
goimallaratua olerki, ipuin, nobelaz
edatuz zure jakituria, egalik egal.

Entzutetsu egin ziñan zure pentsakizun,
eztabaidazko bitxikeri ta binper-elez
giartsu ta, sakon, argira emon zituzun
berein erakusbidezko mami ta azalez.

Zure olerkietan agiri dira biotzezko
izatearen barrunbeko gogai lirikoena;
ta zure aztu eziñeko Bilbo goraltzeko
egindako neurtitz argigarri, laztanena.

Ez dogu ukatu nai ta, ez dogu ukatzen
erdera-bidez lorturiko zure jakintza,
ez dogu gitxitatzen baizik onez txalotzen,
zure aurrelaritzazko lanbide, ekintza.

Eztabaidakari izan zara bai, benetan,
ta, erdal soñekoz jantzi izan ba-zara be,
euskal ikutu ben-bena daroazu zañetan
lurperatu nairiko berbetearen itzalpe.

Bilbotar ospetsu zaitugu, gizon urtena,
gure erri onen erdal-zaletu artean
ta, erabat zaitugu kaxkarin ankerrena
euskerea makilkatu dabenen alorrean.

Eziñak biurrituta, txatxukeri ergelez
ezetsi zendun Ama Lurraren Izkuntza
ta, erbestekoz alikatu ziñan, tamalez,
euskereari opalduz eriotzazko galkuntza.

Alan be, Unamuno, ez zaitugu laidotzen
lotsagarri gerta litzaikigun arinkeriz
zuk destañatsu euskerea iraindu-arren
agurtzen zaitugu erritarkide agiriz.

Zeure Bilbo'n zagoz, jaiotz etxe onduan
Kijote antzera, onen eta aren aurka
ibil izandako ori, beti aldarrika
zeure urdurikerizko gogo esparruan.

Ezin gara aztu arako zure berbakaz
samur, laztan: "Agur arbola bedeinkatube"
ta, beste itz batzuekaz: "Euskaldunak euskaraz
arren, ezta kijenak ikasi biar dabe".

Zelan aldatu ziran ba zure asmo onak
euskerearenganako zure zaletasunak?
Aizeak eroan ebazan zure maitasunak
aizeak asierako sugar, ameskizunak!

Bai, zenbat eder atsegiñago, pozgarriago
izango zan bai ikustea zure irudia
euskal biotzetan barrurago, maitatiago
oñarritu ba-zendun euskera gurgarria!

MUNIATEGI-TAR SABIN

Unamuno-ren 120 garren urtebetetzean idatzia.

BIZKAI JAURERRIA

Zergaitik idatzi dozu BIZKAI JAURERRIA, Bizkai'ko Jaurerria, oi dan lez, ordez? Itanduko dauskuzue irakurleok.

“Bizkai'ko Jaurerriak” - Euske-rea ondo irakatsi baldin ba dauste ta ondo ikasi badot - Bizkai'an Jaurerria dagola adierazten dau. Baiña, ondo esana ete da onelan, España'ko Erreñua — adibidez— esaten dan lez? Antxiñakoak deitzen eutsoen Hispania'n, gaur erreñu bat da. Erreñua baiño lenagotik, España egoan. Onelakoan baiña, nor da antxiñagokoa? Bizkaia ala Jaurerria? Erderaz beti esaten da “Señorio de Vizcaya”. Beraz, “Bizkai'ko Jaurerria” erderatik euskerara biurpen utsa da. Au da erderaz pentsaturikoa, euskeraz esatea. Gure ustez beintzat. Gei-ago dakien ustea itxaroten gagoz.

Kezka au Bizkai'ko Aldundiak “Jaurerria” berba kendu dauskun-ean, Jaunik ezdagola atxakiaz, sortu jaku.

Bizkaia sartu jakun istorian Jaurerri lez. Oraingo Bizkai'ko zati garrantzitsuena, antxiñetako karistien lurtean da. Baiña ezin esan lei, Karisti aien ondorengoa Bizkai au danik. Karisti areik, Gipuzkoa ta Araba gaur diran lurreetatik zabaldu ziren. Gaur

Bizkaia ez diran errietan, Bizkai'ko euskeraz egiten da edo egin da. Adibidez: Eibar, Oñati, Aiala? Laudio eta abar. Bestalde, Enkar-terri'ko sarteldea kanpotik ekarri-tako jende erdaldunetz bete zan.

Orregaitik, Elias de Tejada'k iñoan lez “Bizkai Jaurerria, Kon-dairatik ondorengoa bezala sortua da”. Bizkai'ko elizateak, uriak eta aranak gaur batuak dagoz, beiño-lan jaun berarenak ziralako. Orre-gaitik Orduña Bizkaia da, ta Lau-dio ez da.

Orduña Bizkai'koa izan baiño len, Haro sendiaren jaubetza bat zan. Durango'ko lurak, Bizkai'an sartu ziran, Haro'tarren eskuetara eldu baiño geroago. Enkarterri'ko aranak be foru bereziak eukezan. Avellaneda'n batu ziran, Gerni-ka'n ez. Baiña Jaun beraren jau-betza pean ziralako, Jaurerriari erantsi ziran. Orozko, XVII'ga-rren menderate ez zan Bizkaia. Alba etxearen aurka auzi luzearen ondoan, Bizkaia egin zan, orain berreun urte edo dirala.

Villaverde de Trucios eta Gurie-zo bestalde, Bizkaia ez dira, diru-tza baten, Kastilla'ko Erregeak, Frias'ko Dukeari saldu eutsozala-ko. Sasoi orretan, Balmaseda Lim-

pias eta Colindres be saldu ziran, baiña erri oneik, bildu eben Frias'-ko Dukeari emoteko dirua ta bere askatasuna barriro artzeko. Orre-gaitik Balmaseda Bizkaia da gaur. Limpas eta Colindres alderantziz, Bizkai'ko Forupean bizi-arren ez ziran eldu Gernika'ko Batzarreta-ra, ta Bizkai'tik aldendu ziran. Gero XIX'garren mendean diru ugari, auzietan ondatu eben; baiña ez eben lortu Bizkaia'ri alkartzea.

Kastilla ta España'etako (His-paniarum) erregeak ez eben Jaun lez agintzen, errege lez baiño. Foruak gorde ebezan, baiña oneta-rako ez eben jaunak izatea bear izaten. Gipuzko, Araba ta Napa-rro'koak be gorde ebezan eta lur maite orretan erregeak ziran. Erre-ge altsu aiek titulu-lerro luzea eukun. Erreñu askoren erregeak, gero dukeak, markesak eta kon-deak. Eta ain lerro luzea onelan amaituten zan: “Bizkai'ko ta Moli-na'ko Jauna”.

Onetatik eta luzetu-ezarren aipatu ez doguzan beste arrazoi-kaitik, Jaurerria berba kentzen, Aldundia'k oker egin dauala uste dogu.

IBANEZ KARLOS

GOIENETXEA'TAR ANDRESIO, OLERKARI

Gizona

Leza illuna dogu gizona, misterio ta ezkutuz betea. Ori bera artistak be. Olerkari naiz margolari, barruan daroana adierazo egiten dau artisteak; izate barruan bor-borka daukana azalduz nor dan erakusten dausku. Olerkariak, esate baterako, bere barne-sarrastada ta biotzikara itzez adierazten dau, eta ordurarte ez ba'genkian be aren barruan zer egoan, baiña gero bai: biotz-ikara baten adierazpen artistikua da, izan be, gozona artista egin daroana.

Eta onakoak, bide-ertzeko klabelin usaintsua lez, edozein erritan dagozanak dira, teknikaren bidez berezko senari indar apur bat ezarri ezkeru beintzat. Gaur orri oneitara dakargun koplaria edu onetakoa izan genduan. Nor, baiña? Goienetxea ta Sanz'tar Andresio.

Ia urte bete dala eskuratu eustan Bermeo'n, Eupeme Deunaren elizan txauburu dan Olazar'tar Martin, euskaltzale zintzoak, poesi-liburu arras bitxi bat, "Euxkerazko Olergiak" - "Itxasoko Izar Argiak" titulua dakarrena. Egillea? Azpian dator, Goyenetxea eta Sanz'tar Andresio. Nor dogu berau?

"ZER"-en beronetaz zerbait idatzi nairik, joandako irailaren lenengoetan eskutitz bat egin neutsan Martin'i, angu eliz-liburuak aztertu egizala eskatuz. Andik laster erantzun eustan. "Emen ibilli naz iñoan kartan - gure Goienetxea'tar Andresio nor dan jakin-gurean, baiña dana alperrik. Len baiño be atzerago geratu naz. Lamene'tarrak ez dala euren artekoa diño e ta parroki bietako liburuak

aztertu ondoren ez dogu iñor aurkitu izen-abizen orreik daukazanik, Sanz Goinetxea batzuk Andra Mari'n aurkitu izan arren".

Lenengotan uste genduan, emen Bermeo'n ikastetxea dauken Lametarren batena izango zala, Olazar'ek bertoko Udaletxeko liburutegian aurkitu eban eskuz idatzitako poesi-liburu ori. Onela darrai kartan: "Eskuzko liburu ori Bermeo'ko Liburutegian egoan, Udal-Batzaren Liburutegian. Ango arduradun dan Mallabia-Barrena'tar Biktore'ri be eskatu dautsadaz barriak, baiña ez diño besterik liburu ori Arrantzaleen Erakustetxetik ara etorria dala baiño. Eta len Arrantzaleen Erakustetxean zaintzaille izan zana ez dago olako gauzak gogoratzeko eran. Urte pare bat izango dira toki batetik bestera liburu aldatu zanetik, baiña Erakustetxean noiztik egoan jakiteko biderik ez dot ikusten. Eta gaurkoz ez besterik. Nik billaketa jarraituko dot eta zerbait aurkitzekotan bereala emongo dautzut barria".

Alan be, oraindik, nik uste dot, Bermeo'n ba-dirala Goienetxea olerkaria ezagutu ebenak. Liburuak ez dakar urterik, baiña bai beste zeaztasun batzuk, lorratzean asi ta zerbait argi emon legikeenak. Bizkai'ko Foru Aldundian buru izan zan Jabier Ibarra Berge, "fundador del museo "Ercilla" y que dio origen al museo del pescador" diño sarrerako itzetan. Gauza bi, beraz, bere garaietan egin ziran, museu "Ercilla" ta "Arrantzaleen" museu asiera emon; oraindik ez dira urte asko igaro arrezkeru.

Koplakari onek maite eban Ibarra eta beroni eskiñi eutsan liburuaren atarian bertan amalauko, sonetu bat. Onela diño sonetuak:

"De la Diputación fulgor, puntal y guía:
De ilustre abolengo vizcaino, baña
Sus armas en umbral de épica hazaña;
Para natal brillo a prez conseguía.

Cuán valeroso a sus próceres seguía!
vertió su sangre moza en campaña
Y a honra y loor es Caballero de España;
Y, no contento, hace gala de hidalguía:

Trocó el arma por pluma. Y escribe
Obras de ambiente monumental euscaro
Honrando a Ercilla, a Ayala, a Trueba, a Haro...

Por plácemes que de todos recibe.
Piedra preciosa del más bello oriente
Es de la Diputación su Presidente."

Olerkari

Naiko mardul da liburua. Bertso ta aurkibide LXX-XII orrialde daukaz. Danak eskuz idatzita. Letra nagusiak ez dira errez ulertzekoak, niretzat beñik-bein. Asierako eskintza onela dator:

“Eztago itxasorik
Kolare bakorik,
Ezta bere itxorik
Arrantzal artekorik”.

Neure arrantzale anayari Gumer da Fernando deixonari; baita bere neure lagun mariñel danari; eta, bere bai, neure enrolako arrantzetako “vapor” ikatz, izenez “Poeta del Mar” dekonari. Ezaugarriok ba-diñoskue zerbait gure olerkaria nor izan zan jakin aal izateko. Nik alan uste. Arrantzaleen Kofradien urte askotan langille egon zan Urkidi’tar Julen jaunak jakin leike zer-edo-zer.

Gai askori ikutu arren, itxasoa ta mariñelak ditu geien darabiltzanak. Ona izenburu bitxi batzuk: “Izar argia”, “Matxixakotik Talara”, “Mariñelan miñak”, “Abantean”, “Arrantzaleak”, “Itxasoagaz”, “Jokalai arrantzaleak”, “Izaro’ko Atxa Nagusi!”, “Atun-zaleak”, “Mariaren urramadie”, “Trañeru estropada bat” (iru saio); ba-ditu bestelako gaiak be: “Usotxuak”, “Argitasunak”, “Esanak”, “Edurne!”, “Negarrak”, “Azken agurra”, “Malpraile’ren Sermoya”, “Ertzilla Torrea”, “Gurasoen arazuak”, “Danetara nago” ta abar. 30 poesi guztira.

Gorago aldatu dogun erderazkotik ikusi daikegunez, ez jako falta olerkariari bearrezkoen dituen gaitasunetatik ezer, au da, irudimena ta biotz-ondoa. Irakur eizu urrengo au berak idatzirik itxi euskun legez. (Ez dauz bereizten s ta z). “Arrantxaleak” deritxona dozu. (rr kakoduna idazten dau ta *tza* bearrez *txa*).

“Krezal ganeko ařantxalea zera?
Nezkatoa etor’ko datzu goizean gedarez
eta zeu ezpa’zagoz zur, oñan dandarez
goizean goiz, erukioz, etorko datzu atzera.

Ondiño zagoz zeure gorpu garbikera?
Baña, ez. An doye itxazora. Txarrez
olatu zendoari emon arpi eta, negarez
gurazoak, argia bistuko dago iluntxera.

Baretuta dago itxazoa! Zorionian
eregutu zeroari eñdotzan zendo;
eta oraiñ datoz, pozik, lan da lanian.

An dator ñarru! Or dator Okendo!
txalupek betez ařañez. Tozta ganian,
zei eramoan urumadia, batera zendo!”

Ikusten doguz or zear au baiño amalauko kazkarra-
goak. Ba-ditu amalauko geiago be jakituriz eta ganoraz
jantziak. Aren lan guztiai umore ona darie, euskaldun on
bati legez. Erderaz asko irakurria emoten dau; euskeraz ez
ainbeste, baiña berezko euskeraz ez dauz txarto azaltzen
bere barru-zartako ta ikarak.

Mariñelen asti-uneetako karta-jokuak, janari urrua
(makallu siku azala, ogi kozkorra, ardu pizker bat, mats-
sikubak, iku sikuak), urrin joanaren negarrak, zeruko
argia dan Edurne, itxaoak gora ta beera dagian urruma-
dea, Kaltzapintxo’reñ bizkar egindako barreak, Malpraile-
learen sermoia ta olakoak abesten dauskuz gozagiro ta
olgura ederrean osotuak daukazuz. Baita onako esanak
be:

“Itxazoko mořozko gigořa:
Noz emongo detzu, itxazu ořek,
Gaztetazuneri dekotzen zořa?”

Bermeo itxas-bazter gurian be erneten dira, bai, mari-
aldiak lez, biotzondo apaiñeko olerkariak. Onelakoen
lanak merezi dabe aitamen labur bat ez-ezik, euren saio-
lanak batu ta zabaltzea be.

AITA ONAINDIA

“EUSKARAZ BIZI”

“Euskaraz Bizi” atzalburu edo lematzat dauala ospatu zan Irallara-ren azkenego igandean, Gasteiz ondoko Salburua zelaikada zabalean, zortzi'garren Alderdi-eguna, Euzko Alderdi Jeltzalea'ren urteroko jai. Atzalburu bikaiña benetan eta, atsegingarria euzkotar euzkaldunontzat EAJ beren jairik ospetsuenerako autu ebana. Euzkera asko geiagorik ez zan entzun ostetza arrigarri orren tartean, beste urteetako antzera, bearbada zerbait geiago gaztetxuen artean, ainbat geiago diralako aldi onetan euzkotarron izkuntza, euzkera, darabilen gaztetxuak, eskerrak euzko Ikastolai.

Orixe bai! iñoz baiño sutsuago, biziago azaldu ziran batzarre, mitin, orretan izan ziran itzalari guztiak, baiña, batezberere Garai-koetxea Lendakari azkarra ta EBB'ko lendakari dan Sudupe aberkidea, euzkerak euzkotarrontzat daukon garrantzia garbi ta argi adierazoaz. Izan be euzkera dalako abenderri lez nortasunik geien emoten dauskuna. Antziña-ko geure edesti garbi luzeak baiño geiago.

Lenagoko edozein abertzalek dakian lez, euzkerari emon eutson garrantzirik geien SABIN'ek ludia'ren aurrean Abenderri (nación)lez aurkeztuko ba'zan Euzka-

di eta, orretarikoa izanik beren gogopen zintzoa, lenen-lenen egin ebana euzko arloan osotu zanean izan zan, euzkera ikasi ta ordurarte beintzat, beste iñork baiño obeto sustraitu irakasle bardingabe bat izatera elduteko, lozorroan edo ez-jakiñean aurkitzen zan euzkaldun askoren biotzak berbiztuaz, bizi ziran arteko.

Azkenengo laubost urteotan baiña, pizkat itzirik euki dau euzkera arloa Sabin'ek sortutako EAJ'ak, beste bear-bearreko ziran eginkizun askotan murgilduta aurkitzen dalako eta Euzkadi'ko Alderdirik nagusiena izan, berak antolatu bear izan ditualako euzko Udalak, euzko Aldundiak eta garrantzirik geien dauan Euzko Jaurilaritza. Danok ondo jakin bear doguzan lez, izakari edo gauza orreik ezdira etxaidean, kalea, garrazika eta “iraultzara” jolasean ibillita antolatu eta jaurtzen, buruauste ta neke aundiak izan arren kementsu jarraituaz baiño. Eta, orixe de EAJ'ak egin dauan eta egiten diarduen lana eta, bearbada euzkerarekin geiago arduratutzeko erarik euki ez dauana.

Ori ta guzti be, jeltzaleak izan ziran edo izan giñan, lenen euzko ikastolak sortu ta antolatzerela eldu ziranak, baiña, euron itxitasunagaitik-edo, pizka bat

geiago burrukatu ez egitearren, gaur-egun ikastola geien orreik ez dagoz Sabin-darren eskuetan, beronen etsaien agindupean baiño. Eta, orrexegaitik bearbada, ikastola orreitan ez da irakasten Arana Goiri'tar Sabin nor zan eta Euzkadigaitik zer egin eban. Ez eta berak, Sabin'ek, zergaitik errieuzkera landu garbia nai eban, geure izkuntza abenderrikoa zalako ta abar. Ez dabe bera idatzitako abesti aberkoirik irakatsiten, ez eta euzko edesti batbe edo gitxi baiño.

Esandakoen ordez, sartu dabe euzkera mordolloa, batua'ren ize-
nean baiña, erriak gitxi baiño ulertzen ez dauan izkuntza. Ez ikastoletan bakarrik, bai-ta Euzko Urrutikuzkin edo “Euskal-Telebista”n be. Or euzkera arloan dauko gure Euzko Alderdi Jeltzaleak nun lan egin, benetan Sabin-darrak badira, edo bagera, izan bear dogunez, berak sortutako alderdikideak lez.

Sarritan esan oi-dan lez, ez dago euzkera barik Euskalerririk, bada, Euskal-erriak, Euzkeradun erria esan nai dau. Euzkera barik ez da benetako Euzkadi'rik be.

ALTUNA'TAR JOSU

EUSKERA BIZKAIKO KRISTIÑAU IKASBIDEAN

Euskerearen eta Bizkairearen historian, "Kristiñau Ikasbideak" aparteko esanai bat daukela ukatu ezin letekean gauzea da. Alde batetik, idazti batzuk izanik, aldi eta inguru bakotzeko euskerearen lekuko lez gelditu jakuz; eta, bestetik, liburutxu onen inguruan eratu izan dan katekesiaren ekintza erriarentzat ikastola baten antzeko izan dala esan geinke.

EUSKERA BIZKAIKO KRISTINAU IKASBIDEAN gaia aztertzerakoan, historia alderdiari geigao ikutuko deusat, euskerearen erabilkerari baiño.

Leenengotik izentau nai ditut lan au gertatzerakoan erabili ditudan iturriak:

- "Constituciones Synodales antiguas, y modernas del Obispado de Calahorra y La Calzada. Reconocidas, reformadas y aumentadas novissimamente por el Ilustrissimo Sor S^o D. Pedro de Lepe Obispo deste Obispado, del Consejo de Su Magestad, &c. En el Synodo Diocesano, que celebrou en la Ciudad de Logroño, en el año de mil y seiscientos y noventa y ocho". Madrid, 1700.
- "Decretos y Constituciones del Sinodo Diocesano celebrado en la S.I.C. de Vitoria por el Excmo. e Ilmo. Sr. Obispo de la misma Dr. D. Mariano Miguel Gómez. Año 1885." Vitoria, 1889.
- J. VINSON, "Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque". Bilbao, 1983. (1891 urtean Paris-en argitaratu zanaren bir-argitarapena).
- JON BILBAO, "Eusko Bibliographia". Donosti, 1970-1981.
- MIKEL ZARATE, "Bizkaiko Euskal Idazleak". Bilbao, "Eusko Bibliographia". Donosti, 1970-1981.
- MIKEL ZARATE, "Bizkaiko Euskal Idazleak". Bilbao, 1970.
- "Jaungoiko-Zale" aldizkaria. Zornotza, 1912-1932.
- Bizkaieraz argitaratu diran ainbat "Kristiñau-Ikasbide" eta Kristiñau-Ikasbide azalpen.

1. Katekesia Eleizearen historian

Katekesia Eleizeagaz batera sortutako ekintza bat da. Ebanjelioetan eta Testamentu Barriko beste liburuetan aurkitu geinke zelan iragarten zan Jesusen Barri Ona eta zelan azaltzen zan bere Salbaziño-egintza leenengo orduko kristiñauen artean.

Katekesiaren historian, II-gn gizaldiaren erditik VI-gn gizaldira arteko tartea garrantzi aundikoa izan zan. Eleiz eta katekesia erakunde eder baten aroa: "KATEKUMENADUA"-ren aldia. Arlo onetan, Eleiz-Gurasoen ekintza benetan txalogarria izan zan Ezagune-

nak aitatzekotan: San Agustin, Jesuralen-go San Zirilo, San Joan Krisostomo eta San Ambrosio aitatuko neukez. Erakunde onen barruan, Bateoko Sakramentua artu nai ebenak, Fedea zer dan eta Fedeko egiak ezagutzea lortzen eben; eta, denporaldi naiko luze baten zear, euren bizike-reagaz kristiñau zintzo batzuk lez bizitzeko gertauta egozala agertu bear eben.

VI-gn gizaldian, Katekumenaduaren erakunde onek indarra galdu dau Eleizearen bizitzan. Eta Katekesia, bateatutakoentzat Erlejiñoeko egien azaleko azalpen biurtzen da.

VII-gn gizalditik XIII-garrenean bitartean, Katekesia domeketan emoten dan "instruziño" edo irakaspen bat baiño ez da. Irakaspen onetan buruz ikasitako "Kredoa" edo Apostoluen fede-bilduma eta "Aita gurea" azaltzen dira, eta fedeko betebearrik nagusienak zeintzuk diran agertzen da.

XIV ta XV-gn gizaldietan, erlejiño irakaspen au ere geroago ta eskasago egiten dala dirudi. Eta geroago ta argiago ikusten da gure Erlejiñoeko egi nagusien bilduma baten bearrizana.

2. Trento-ko Kontzilioaren ondorengo katekesi-barrizatzea

Bearrizan oneri erantzuteko, 1555 urtetik 1558 urtera bitartean agertzen dira San Pedro Kanisioren Kristiñau Ikasbideak. 1529 urtean Lutero-k argitaratutako "dotriñai" katolikoaren aldetik emoten jaken erantzuna.

Eta batez ere asmo onegaz agertzen da, 1566 urtean, Trento-ko Kontzilioaren "Erroma-ko Katezismoa". Parrokoei eta sermolariei zuzendua; Ebanjelioa eta Kredoa azaltzeko gaiez ornidua. Trento-ko Dotriña onetan agertuko dira leenengoz gero ia geienetan jarriko diran lau zatiak: Kredoa, Sakramentuak, Aginduak eta Aita gurea.

Trento-ko Kontzilioaren ondoren, Gotzaiñak, ume eta nagusien katekesia arloan, Kontzilioak emondako erabagiak beteten aaleginduko dira: Parrokoei aginduko deutse domeka eta jaietan, eta garizuma-aldian sarriago, umei dotriña irakatsi dagitsela; gurasoei eskatuko deutse bialdu dagiezala euren seme-alabak eleizara eta etxean ere dotriña-irakasle izan daitezala; eta beste orrenbeste eskatzen deutse eskoletako maisuei ere, irakatsi dagiela erlejiñoa eskoletan. Umeen katekesiaren erakundea une onetan sortzen dala esan geinke.

Kontzilio onen eragiña Eleiza osoan ikaragarria izan zan, eta Euskalerrian, bear bada, iñun baiño aundiagoa. Bere erabagiak iñun onartuak izan baziran, gure artean izan zan. Euskal bizitzako alderdi geienak kristau-kutsuz jantzi ziran; eta laster zabaltzen asiko da "euskaldun, fededun" esakerea.

3. Kalagorri-ko Gotzaiñen jokabidea

Aldi aretan, Bizaiko lurraldea, geien baten, Kalagorri-ko Obispadua zati bat zan. Eta Eleizbarruti onetako Gotzaiñak Euskalerrinari buruz artu zituen erabakiak benetan txalotzekoak dira. Euren esker, edozenbat Kristiñau-Ikasbide egin eta euskeratu ziran, errialde bakoitzeko euskalkietan gaiñera. Eleiz-gizonak itzaldiak eta dotriña-azalpenak euskeraz egitera beartu zituen.

Euren garrantziagaitik, naiz eta erderaz idatzita egon, Kalagorriko Gotzaiñak artutako erabagion textu batzuk emen jarten ditugu:

Que los Prelados hagan imprimir cada año Doctrinas Christianas, en lenguaje acomodado à las Provincias.

CONSTITUCION X

Don Pedro Manso, en Logroño, año de 1600

Y porque es conveniente, que cada Provincia tenga la Doctrina Christiana impressa en lengua paterna; y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipuzcua, y Alaba: Estatuimos, y ordenamos, que los Señores Obispos, nuestros successores, hagan imprimir cada año cartillas de la Doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, segun el vso de las dichas Provincias, para que los Curas tengan cartillas en la lengua propia de cada Provincia: porque Nos assi lo avemos comenzado à hazer en nuestro tiempo; y las que se imprimieren en Vazquence, tengan tambien la Doctrina en Romance”.

Dase forma de como se han de hazer los Cathecismos de Doctrina Christiana en Vazquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vascongadas.

CONSTITUCION XI

Don Pedro de Lepe, en Logroño, año de 1698

Es nuestro animo, que la Constitución antecedente se observe como sana, y saludable, en quanto ser pueda. Mas aviendo mirado con atencion todas las cosas que pueden ayudar à este santo intento en las Provincias Vazcongadas, hallamos, que no es facil dar impresso texto, ò explicacion de Doctrina Christiana, que uniformemente pueda servir en todas las tierras, en donde se habla este Idioma, por la mucha diferencia que ay del Vazquence de vnos lugares à otros, segun la mayor, o menor distancia, que entre ellos ay, de la fuente, y origen de la lengua Vazquence: de donde nace, que en unos pueblos no se entiende aquella lengua perfectamente, la qual en otros es vsual, y materna. Y para dar forma con que

todos tengan explicacion conveniente de la Doctrina Christiana: ordenamos y mandamos, S.S.A. que se haga vna breve explicacion de ella, por persona Docta, en cada vna de aquellas partes, en donde es comun, y sin obice alguno el Idioma Vazquence; y esta se comuniquè à los Curas de aquella circunferencia, en donde se habla el Idioma, con aquel vso de voces. Lo qual encomendaremos à personas inteligentes, y de doctrina: que sin duda alguna las ay en el Vazquence. Y hablamos de experiencia, por aver encontrado en todas partes Sacerdotes con caudal de sciencia, muy competente para enseñar à otros. Y el quaderno, que en cada parte se hiziere, facilmente se puede dar à la Imprenta, para la mayor facilidad en la comunicacion”.

(Ikusi, “Constituciones Synodales... de Calahorra..”, 126-127 or.)

Agiri oneetan argi eta garbi agintzen da:

- Errialde bakoitzak “Dotriña” bere izkuntzan euki dagiala.
- Gotzaiñak euren buruak beartzen ditue dotriñak euskeraz argitaratzera.

Eta, orrez gaiñera, euskalkien ezbardintasuna ere onartzen da.

Ondoren jartzen ditugun agirietan,

- Kristiñau Ikasbidea noiz eta zelan irakatsi beartzen da,
- eta ez dala naiko Dotriña buruz jakitea; aitu ere egin beartzen dala, eta orretarako azaldu egin beartzen dala eta aitzen dan izkuntzan,

agertuko deuskue Kalagorri-ko Gotzaiñak:

CONSTITUCION II

Don Pedro Goncañez de Castillo, en Logroño, año de 1620

.....
Establecemos, ordenamos y mandamos, que los Curas de este nuestro Obispado todos los Domingos, y dias de Fiesta, al tiempo del Ofertorio de la Missa Mayor, quando no huviere Sermon, enseñen la Doctrina Christiana à sus Feligreses: enseñandoles à persignar, y santiguar, y diziendo con ellos en alta voz las quatro Oraciones, y los Articulos de la Fè, y los Mandamientos de la Ley de Dios, y los Mandamientos de la Santa Madre Iglesia, y los siete Sacramentos; y esto no en latin, sino en lengua vulgar materna de cada vno, aunque sea Vazcongada, de manera, que todos lo entiendan, y lo puedan aprender...”

CONSTITUCION III

Don Pedro de Lepe, en Logroño, año de 1698

Y porque importa poco que el Christiano sepa de choro, y memoria el texto de la Doctrina Chris-

tiana, si no tiene competente inteligencia de lo que en él se contiene; para que se consiga el fin que se desea en la Constitucion antecedente: Ordenamos, y mandamos, S.S.A. que quando se explica la Doctrina Christiana, ... despues de haver dicho el texto de la Doctrina, como dize la Constitucion antecedente, ò en otra forma conveniente, se haga explicacion en forma, de la Doctrina que han recitado; lo qual si el Cura, ò la persona que la explica, tiene suficiente caudal de sciencia, hara en forma conveniente, para que todos entiendan lo que deben saber. Y en caso de que no se quiera aventurar à hazer razonamiento

en la manera insinuada, leerà un Cathecismo, de los muchos que ay escritos, en aquella parte, que trata delo que se ha dicho del texto de la Doctrina..."

(Ikusi aitatutako liburua, 117-118 or.)

Eta, azkenez, naizta larregi luzatzen doazalako kezkatuta egon, ezin dot aiatatu barik itzi Kalagorri-ko Gotzainen beste agiri bat, euskereari begira daukan garrantzia-gaitik:

"Que en la tierra Vazcongada los Sermones sean en Vazquence.

Que en la tierra Vazcongada los Sermones sean en Vazquence.

CONSTITVCION XII.

Porque somos informados, que en la tierra Vazcongada, *Don Pedro Manso, en Logroño, año de 1600.* y especial en los lugares, que la mayor parte de ellos habla Vazquence, los Predicadores por autoridad predicán en Romance, y no en Vazquence: de lo qual se sigue grande daño; y que la gente que viene de las caserías à oírlos, como no saben Romance, se salen ayunos del Sermon. Por tanto, Santa Synodo Aprobante: Ordenamos, y mandamos, que en los tales lugares los Sermones se hagan en Vazquence, y los Curas no consientan otra cosa, so pena de que seran castigados: y lo mismo guarden los dichos Curas quando declaren el Evangelio.

Y mandamos, S. S. A. que esta Constitucion de predicar en Vazquence, se observe tambien en los pueblos, en donde casi todos entienden Romance: porque guardada esta forma, todos se aprovechan de la Doctrina; y siendo el Sermon en Romance, necessariamente quedan sin entenderlo aquellos pocos, ò muchos que lo saben. Y siendo el Predicador, segun San Pablo, deudor à todos, debe predicar de modo que à todos aproveche; y por esta razon en todo el Vazquence los Predicadores naturales de la tierra, deben ser antepuestos à los que no lo son. *Don Pedro de Lepe, en Logroño, año de 1698.*

CONSTITUCION XII

Don Pedro de Lepe, en Logroño, año de 1698

Dô Pedro Manso, en Logroño, año de 1600

Porque somos informados, que en la tierra Vazcongada, y especial en los lugares, que la mayor parte de ellos habla Vazquence, los Predicadores por autoridad predicán en Romance, y no en Vazquence de lo qual se sigue grande daño; y que la gente que viene de las caserías à oírlos, como no saben Romance, se salen ayunos del Sermon. Por tanto, Santa Synodo Aprobante: Ordenamos, y mandamos, que en los tales luares los Sermones se hagan en Vazquence; y los Curas no consientan otra cosa, so pena de que seran castigados y lo mismo guarden los dichos Curas quando declaren el Evangelio

Y mandamos, S.S.A. que esta Constitucion de predicar en Vazquence, se observe tambien en los pueblos, en donde casi todos entienden Romance: porque guardada esta forma, todos se aprovechan de la Doctrina; y siendo el Sermon en Romance, porque guarda esta forma, todos se aprovechan de la Doctrina; y siendo el Sermon en Romance, necessariamente quedan sin entenderlo aquellos pocos, ò muchos que (no) lo saben. Y siendo el Predicador, segun San Pablo, deudor à todos, debe predicar de modo que à todos aproveche; y por esta razon en todo el Vazquence los Predicadores naturales de la tierra, deben ser antepuestos à los que no lo son".

(Ikusi aitatutako liburua, 127-128 or.)

1862 urtean, Bizkaiak, Araba eta Gipuzkoagaz batera, Gasteiz-ko Eleizbarrutia osotuko dau. 1885 urtean ospatu eban bere leenengo Sinodoa edo Batzar Nagusia. Eta bere agirien liburuan berba oneek irakurri geinkez: “2. Siendo un hecho indudable, gracias à Dios, segun Nos hemos informado en la Santa Pastoral Visita, que en la mayor parte de los poblaciones de Guipúzcoa y Vizcaya y principalmente en los caseríos, apenas se habla otro idioma que el vascuence, ENCARGAMOS à los Párrocos y demás Sacerdotes que, en la predicación del Santo Evangelio y explicación de la doctrina cristiana, se valgan del idioma usual en las respectivas localidades” (Ikusi “Decretos y Constituciones del Sinodo Diocesano... de Vitoria”, Vitoria, 1889, 21 or.).

4. Bizkaierazko Kristiñau Ikasbideak

Gure leenengo Kristiñau Ikasbideak Kalagorriko Gotzaiñen agirien inguruan jarri bear ditugu.

Manso Gotzaiñaren berbak egiztatzeko (ikusi X-gn Konstituziñoa), or dago BETOLACA-ren DO'RINEA: 1596 urtean Bilbon argitaratua. Berau dogu bizkaieraz guganaño eldu dan leenengo liburutxo. Baten-batek gure leenengo dotriña berandukoa dala uste ba dau, gogoratu bei Trento-ko Dotriña 1566 urtean argitaratu zala, eta Katekesiaren historian ezagutzen diran beste Kristau Ikasbide geienak arrezkerokoak dirala. Gasteleraz entzute geien euki daben Dotriñak ere sasoi onetakoak dira: RIPALDA-rena, 1591 urtean Burgos-en argitaratua, eta ASTETE-rena, 1599 urtean Madrillen argitaratua.

XVII-gn gizaldian... euskaraz.

- KAPANAGA-rena (euskeraz eta gasteleraz). 1656 urtean Bilbon argitaratua.
- “VIVA JESUS” berbakaz asten dana... Kapanaga-renaren sasoi ingurukoa.
- NIKOLAS DE ZUBIA-rena, 1691 urtean, Donostian argitaratua.

Bizkaierazko leenengo lau Kristiñau Ikasbide onei buruz auxe esango neuke nik: ez dabela izan beste argitarapenik —edo guganaño ez dira eldu beintzat—, euskalaz-leren batek egindako bakarren bat izan ezik. Zer esan nai dau onek? Urtero dotriñak argitaratzeko Gotzaiñen agindua ez dala bete? Errezoia beste au ere izan leiteke: aldi aretan erabilten zan pedagogia, kantaka lez, bein eta barriro esatea arik eta ikasi arte (Lepe Gotzaiñaren berbak gogoratu); eta orretarako, eleiza baktokxan abadeak dotriña bat euki ezker, ez zan besterik bear.

XVIII-gn gizaldian, beste iru Kristiñau Ikasbide agertzen jakuz:

- ARZADUN-ena, 1731 urtean Gasteiz-en argitaratua.
- AITA CARDABERAZ-ena, 1762 urtean agertu zana.
- Eta OLAETXEA-rena, 1793-1794. Dotriña bi ataraten ditu: bata naiko zabala, Kristau Fedeko egien azalpenak; bestea, laburragoa, umetxuak errezago buruz artu dagien.

Iru Dotriña oneek zabalkunde aundia izan dabe gure artean. XX-gn gizaldi onen barruan egindako argitarapenak or-emen aurkitzen dira; onek esan gura dau ia gizaldi bitan erabiliak izan dirala.

Geroago datorren Kristiñau Ikasbideen zerrenda osoan ikusi daiteken lez, XIX-gn gizaldian beste 9 Dotriña agertzen dira bizkaieraz. Baiña emen, batez ere iru aitatu-ko neukez nik: MOGUEL-ena (1805), LAUDIYO-ko ABADEENA (1828) eta BUSTURI-ko BIKARIAKOA (1849). Eta beste laugarren bat, bere apartekotasuna gaitik, erri bateko euskeran bertarako egiña: “Eusquerasco Dotriñe Otsandijoaco” (1849).

XIX-gn gizaldi onen barruan argitaratzen dira gure sermolari entzutetsuenen lanak ere. MOGUEL-ek berak, Aita PRAI BARTOLOME Santa Teresak, ASTARLOAK eta ITURZAETA-k erririk-erri egindako itzaldiak idatzita utzi deuskuez; eta euren lanaren frutuaz aldi aretako abade askori Kristiñau Ikasbidea errezago azaltzeko laguntza neurtuezindakoa emon deutse.

XX-gn gizaldian, iru gauza azpimarratuko neukez nik:

- **Kristiñau Ikasbide barrien ugaritasuna:** Ogeitik gora argitaratzen dira, aurreko gizaldietako batzuk oraindik erabilten dirala; Kristau Ikasbideen saillean ikusi daiteke euren aitamena.
- **“Jaungoiko-Zale” bazkunaren ekintza:** 1912 urtean Bizkaiko abadeen artean sortutako alkarte onek asmo bikotx au dauka: Kristiñau Ikasbidearen eta Euskerearen zabalkunde. Bere lema “euskaldunei, euskeraz” izango da. Bere urteroko batzar nagusi, aldizkari eta argitarapenetan, eta umeentzat eratu zituan Kristiñau Ikasbide Sariketen bidez, elburu ori zintzo beteten aalegindu zala agiri-agiriko gauzea da. Abade alkarte onek aalegin aundiak egin zituan Kristiñau Ikasbidearen batasunaren alde. Eta euren eta beste askoren guraria egi biurtuta ikusi eben.

“Jaungoiko-Zale” taldeagaz lotuta dago J. K. IBARGUTXI-ren izena; leenengo, alkarteko aldizkarian, eta gero liburuetan, Kristiñau Ikasbide osoaren azalpenak argitaratu zituan.

- **Batasunaren arazoa:** XX-gn gizaldi onen leenengo urteetan, Bizkaian bakarrik, lau kristiñau ikasbide gitxienez erabilten dira: Durango aldean ARZADUN-ena, Gernika inguruan BUSTURI-ko BIKARIA-koa, Markiña aldean MOGUEL-ena eta Orozko inguruan LAUDIYO-koa. Or-emenka, batasun baten bearrizana agertzen da. Eta 1915-ko zemendiaren azkenetan, Melo y Alcalde Gotzaiñak Kristiñau Ikasbide Sariketa bat eratzten dau, Eleizbarruti osorako dotriña bakarra izentetako asmotan (Ikusi “Boletín Oficial del Obispado de Vitoria”, LI (1915), 570-574 or.). 31 dotriña aurkeztu ziran Sariketa aretara: 6 gasteleraz eta euskeraz, 12 gasteleraz eta 13 euskeraz (Ikusi, “Boletín...”, LII (1916), 238-240 or.).

1920 urtean argitaratuko da leenengoz, Eijó y Garay gotzaiñaren oneretxiagaz, “Vitoria Eleizbarutirako Kristiñau Ikasbidea”. Gipuzkeraz,

Manuel Lekuonaren itzulpenean; eta bizkaieraz, J. B. EGUSKITZA-k euskeratuta. Erderazko dotriña 1923-ra arte ez da argitaratzen. Bizkaierazko argitarapenari buruz beste au ere geitu nai dot: leenengo argitarapena Bizkaiko Aldundiak bere ikas-toletarako egin ebal, eta andik ille batzuetara argitaratu zala bigarren aldiz —30.000 ale— parroketan zabaltzeko (Ikusi, “Jaungoiko-Zale”, 1921, 163 z., 23-24 or.).

Kristiñau Ikasbide au oso onartua izan zan, eta beronen argitaratzeaz, billatzen zan batasuna, neurri aundi baten beintzat, lortu zala esan geinke; naiz eta oraindik beste kristau ikasbide batzuk ere argitaratzen jarraitu.

1950 urtean, Bilbo-ko eleizbarrutia sortzen danean, ordura arte Gasteiz-ko Eleizbarrutiko Kristiñau Ikasbidea zana, Bilbo-Eleizbarrutirako Kristiñau Ikasbide lez argitaratuko da; au da, eleizbarruti barriak, leengo dotriñeagaz jarraitzea erabagiten dau, eta berau izango da “dotriña ofisial” bakarra arik eta 1958 urtean Estatu maillako eleizbarruti guztietarako Kristau Ikasbide bakarra agertu arte.

Estatu maillako Kristau Ikasbide au gasteleraz iru maillatan argitaratzen da. Euskeraz leenengo eta bigarren mallea bakarrik argitaratuko dira.

Eziketa Lege barriak eta pedagogiaren aurrerapideak eraginda, gasteleraz dotriña barriak egiten dira. 1968 urtean asita, Oñarrizko Irakaskuntza Orokorreko leenengo 6 maillatarako Kristau Ikasbide barriak argitaratzen dira; 6 kristau ikasbideetatik 4 argitaratu dira bizkaieraz (1-2-4-5). Oñtxek dira bizkaieraz argitaratutako azkenengo Kristiñau Ikasbideak. Gaiñera, esan geinke, batasunaren bidean emondako beste pausu baten testigu dirala: leenengo pausoa eleizbarrutiko dotriñen batasuna izan zan; gero Estatu maillakoa, eta azken onetan, oñarrizko itzulpena euskalki guztietako artean egin zan, naiz eta gero Bizkairako bizkaieraz jarrita argitaratu.

5. Kristiñau Ikasbideok Bizkaieraren ibilpidean

Egia da emen aitatzen diran Kristiñau Ikasbide batzuk ez daukela balio aundirik euskera aldetik. Baiña, geienetan, erriak erabilten dauan eta aituten dauan euskeran idatziak izan dira; eta aldi eta inguru bakotzeko euskerea ezagutzeko lagungarri eta agiri ezin obeak dirala esango neuke nik.

Erriko euskerea jaso dabe, eta erriko euskerea egiten lagundu ere bai; batzuetan ondo, eta beste batzuetan txarto. Eta arazo oneri buruz AITA PRAI BARTOLOME-k bere “Icasiqizunen” I-go liburuaren sarreran esaten dituan berba batzuk gogoratu nai ditut emen:

“Verbeetia imini dot neure erricua; daquidana. Eusqueeraco guztietati apaindubena, ederreena, ta ezitsubeena izan ez arren; izan leiteque, Euscaldunen baztar bateti bestera, eche guztietan dei eguinda, iragota, cer naidaven, onduen zaarrai aituko deutseena, ta adierazoco deutseena. Alan uste dot. Ta jazozat

Naparruan, Quiputzetan, ta Vizcaijan, eldu nasan lecubeean.

Esan batzuc imini ditut gogo bagaric, gueure Eusqueeraco verbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, pres-tu, ugarida gueure erruz, ervesteti etorrijac. Eusque-ria berez aberatsa da, baguenqui ondo. Gueuc Eleisa guizonoc verba ascotan naastau, ta ezaindu dogu Eusqueria. Gueuri entzunda, daquijeez baserrijeta-cuac *Jaungoico Omnipotentia, Poderosua... Virginia Clementisima... Misericordijosia... Mandamentu-bac... Absolvicinoia... Doloria... Errestitucinoia...* Ta beste onaco verba euscalgaistoco asco. Erdeera ezda-quijeen euscaldunac, eureen echeetan, ta artu emoneetan biar daveen guztia, esaten dave eusquera gar-bijan. Cristinautzaco icasijan dira euscaldun gais-tuac. Ezda au eusquearien erruba, ezpada gueuria. Ta, ain dauqueez ija artubac erdeera, edo latin verba batzuc ece, euraquin ezpada, aituten ezdavee ondo dotrinia, edo cristinautzaco eracutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erveste verba batzuc Icasiqizunee-tan. Bada Cristinautzaco eracutsijan zucen aituten emotia, leenago da, verbeetan eracustia baino...” (“Jaungoicoaren amar aguindubee-taco leleno bosteen Icasiqizunac”, Iruña, 1816, VIII-IX or.).

Eleiz-gizonok geure jokabideagaz, alde batetik, eus-kereari indarra emon deusaguna ezin ukatu; baiña, beste-tik, geure alperkeriagaitik sarritan erriko euskerea ez dogula bear bestean aberastu eta batzuetan naastau eta ondatu egin dogula ere bardin autortu bearrean gagoz. Eta Bizkaierazko Kristiñau Ikasbideetan ere era guztietakoak aurkitzen ditugu: euskera mordolloan idatziak, iñok aitzen ez dauan euskera garbiegian idatziak, eta erriko euskera eder eta garbian idatziak. Dana dala, nik esango neuke Kristiñau Ikasbideok, euren akats eta guzti, gure Bizkaie-rari laguntza eta indar ikaragarria eskeiñi deutoela.

Eta, amaitzeko, berba bi, ondoren jarten diran geiga-ri bie buruz:

- Leenengo geigarrian, bizkaieraz argitaratu diran Kristiñau Ikasbideen zerrenda bat eskeintzen da, izan dituen argitarapenen barri emenez. Kristiñau Ikasbide liburutzuen, eta Kristiñau Ikasbide Azal-penen zerrenda. Geienetan, euren izenburu edo tituloak laburrago jarri zeitekezan; baiña naiago izan dot osorik iztea, emoten dituen zeaztasunak jakingarriak begitandu jatezalako. Ziur asko, emen agertzen ez dan beste Kristiñau Ikasbideren bat ere izango da, edo emen agertzen diranen beste argitarapenen bat. Nik lan onen asie-ran aitatutako iturrietan aurkitu dodanaren barri emoten dot; besteren batek lan au osotu aal badau, ondo baiño obeto.
- Eta bigarren geigarrian, bizkaierazko dotriña orreetariko batzuetan agertzen diran “Aita gurea”-ren textoak datoz. Batzuetan, dotriña berberaren Aita gure bi jarri ditut, baiña argitarapen ezbar-diñetatik artuta; olan ikusten da, urteetan zear zela-ko ikutuak egiten jakezan euskera aldetik. Azke-nean, osagarri lez, beste liburu batzuetatik artuta-ko “Aita gure” batzuk ere jarten dira.

A) "KRISTINAU-IKASBIDEAK":

1. "Doctrina Christiana en Romance y Basquence, hecha por mandado de D. Pedro Mâso, Obispo de Calahorra, y la Calçada, y del Consejo del Rey nuestro Señor, para las tierras Bascoñgadas de su Obispado, reducida por el Doctor Betolaça, a lenguaje mas comun, y más usado y q. con mas facilidad se entiende en todas ellas, para bien, y utilidad de sus obejas de aquellas partes, que por largos años, las apaciente y gobierne, a gloria y honra de Dios nuestro Señor. Amen."

Bilbao, 1596

(Ikusi, MITXELENA, L., "La Doctrina Christiana de Betolaza", BRSVAP, 11 (1955), 83-100 or.).

2. MARTIN OCHOA DE CAPANAGA

"Exposicion breue de la doctrina christiana compuesta por el P: M. Geronimo de Ripalda de la Compañia de Jesus. Con el examen de conciencia y acto de contricion. Exercicios quotidianos. Significaciones de los ornamentos sagrados. Y misterios de la Missa, sacado todo de diuersos autores. y Traducido del lenguaje castellano al bascongado por el licêciado Martin Ochoa de Capanaga Clerigo Presuitero beneficiado de la anteiglesia de Mañaria, y maestro de gramatica de la Villa de Taura de Durango. Dedicado al Illustrissimo Señor don Ioan Ioaniz y Echalaz Obispo de Calaoarra y la Cal ada, del Consejo de su Magestad, & c."

Vilbao, 1656.

Beste argitarapen bat: Vizeun, 1893.

3.

"Viva Jesus - IHS. Y sea para Honra, y Gloria suya este Compendio, ò suma breue de la Doctrina Christiana; la que (por lo menos) debe saber todo fiel Christiano para salvarse, y la deben enseñar los Señores Curas a sus Feligreses, los Padres a sus Hijos, y Señores a sus Criados, y Familia, si tienen duda de si saben, ò no. Y la obligaciõ assi de enseñar, como de saber es debaxo de pecado mortal; pues nadie se puede salvar sin saberla, llegando a tener vso de razon."

, c. 1660?

(Ikusi, MITXELENA, L., "Textos Vascos antiguos. Un Catecismo vizcaino del siglo XVII", BRSVAP, 10 (1954), 85-95 or.)

4. NICOLAS DE ZUBIA

"Doctrina christiana en Bazquence."

San Sebastian, 1691.

(Kristau-Ikasbide au Ldo. D. Joseph de Lezamis-en "Vida del Apostol Santiago el Mayor" (Mexico, 1699) liburuan aurkitzen da.)

5. MARTIN DE ARZADUN

"Doctrina Christianeen explicacinoa eusquera, cein ofrecietan deusten euscaldum gustiai. Don Martin de Arzadun Durangoco Vrico Elexetaco Beneficiadu da Cureac."

Vitoria, 1731.

Beste argitarapen batzuk: Iruñean, 1748 - Bilbao, 1815 - Bilbao, 1919 - Bilbon, 1830 - Bilbao, 1838 - Bilbao, 1841 - Bilbao, 1855 - Bilbao, 1856 - Valladolid, 1861 (1) - Valladoliden, 1869 - Valladoliden, 1873 - Bilbao, 1890 - Durango, 1895 - Durango, 1900 - Durango, 1905.

(1) Argitarapen onetatik aurrera, beste izenburu onegaz agertzen da: "Cristaubaren dotrinaren esplicacinoa eusqueras D. Martin de Arzadun Durangoco urico eleisetaco beneficiatua ta arima jagoliac ipiniya. Orain euscaldun gastechuben adisquide batec -(1873)-ko argitarapenean, J. D. Unzueta aitaten da)- barristatua eta cerbait gueituta emoten dau arguitara aterateco biar dirian escubidiacaz". Valladolid, 1861.

6. AGUSTIN CARDABERAZ

"Dotrina Cristiana edo Cristiñau dotrinea, bere declaracino laburragaz: Itaude, ta eranzueracgaz, Aita Asteteren libruchoric aterea. Azquenean arimen salvacioraco bear direan gauzaren batzuc. Guçia cura jaun eta escola maisuai Jesusen Compañiaco Aita Agustin Cardaberaz-ec ofrecietan ta dediquetan deutse."

Iruinean, 1762?

Beste argitarapen batzuk: Tolosan, 1793 - Bayonnan, 1906. Bilbao, 1973 (Euskal lan guztiak, I, 399-455 or.).

7. BARTOLOME OLAECHEA

"Cristinauben Dotrinia. D. Bartolome Olaechea, Bilboco Ospitale santuco Erretoriac, Laucarizco Cura zanian, Jay Domequetan espliquetan evan leguez. Orain laburrago imini da emen (2), multilchubac errazago buruz artu daijen."

Bilbon, 1794.

(2) Beste "Dotriña", Kristiñau-Ikasbide azalpenen saillean jarri dot.

8. JUAN ANTONIO MOGUEL

“Cristinaubaren Jaquinvidea aita Astetec erderaz eguina, ceñetan aguertu ta adierazoten dirian itaune, ta erantzutetan gueure fedeco gauzaric biarrenac. Ifnieban bizcaico eusqueran on Juan Antonio Moguel, ta Urquiza, Marquinaco Curiaç.”

Vitorijan, 1805.

Beste argitarapen batzuk: Tolosa, 1813 - Bilbao, 1819 - Vitoria, s. d. Bilbao, 1821 - Vitoria, 1823 - Bilbao, 1828 - Bilbao, 1829 - Bilbao, 1831 - Bilbao, 1838 - Bilbao, 1844 - Bilbao, 1849 - Bilbao, 1855 - Bilbao, 1856 - Bilbao, 1856 - Bilbao, 1866 - Bilbao, 1879 - Bilbao, 1883 - Tolosa, 1883 - Tolosa, 1887 - Tolosa, 1890 - Tolosa, 1894 - Durango, 1896 - Bilbao, 1897 - Bilbao, 1900 - Tolosa, 1900 - Bilbao, 1901 - Durango, 1902 - Tolosa, 1903 - Tolosa, 1909 - Durango, 1909 - Durango, 1914 - Tolosa, 1920.

9.

“Cristiñau doctriñea bere esplicacino laburragaz itaune ta eranzueracaz aita Asteteren liburuchutic aterea bizcaitar barrucuentzat.”

Vitoria, 1802.

Beste argitarapen batzuk: Bilbon, 1846 - Bilbao, 1849 - Tolosa, 1889.

(Vinson-en eretxian, dotriña au Moguel-enaren laburpena da. Beste batzuk, ostera, Busturiko Vikariakoagaz lotzen dabe.)

10. LAUDIOKO ABADIAK

“Cristiñau Doctriña aita Gaspar Astetec erderaz escribidua eta guero D. Gabriel Menendez de Luarcac gauza asco erantzita atera ebana. Orain eusquerara biyortuta, urteiten dau arguitara cerbait gueiyagoturic Laudiyoco abade jaunen encarguz eta costuz.”

Bilbon, 1828.

Beste argitarapen batzuk: Bilbon, 1854 - Bilbao, 1868 - Bilbon, 1877 - Bilbon, 1890 - Bilbon, 1891 - Durango, 1895 - Tolosa, 1901 - Bilbon, 1909 - Durangon, 1915.

11. BUSTURIKO BIKARIA

“Cristinau Doctriña bere esplicacino laburragaz itaune ta eranzueracaz aita Asteteren liburuchutic aterea bizcaitar barrucuentzat. Azquenean iminten dira Arimen salvacinoraco bear edo ondo direan gauza batzuc. Urteten dau arguira bigarren

aldix. Busturico Vicariaco Abade Jaunen encarguz.”

Bilbon 1849.

Beste argitarapen batzuk: Bilbon, 1855 - Bilbon, 1866 - Bilbon, 1875 - Bilbon, 1883 - Bilbon, 1887 - Bilbon, 1888 - Tolosa, 1889 - Tolosa, 1893 - Guerniquen, 1893 - Bilbon, 1897 - Durango, 1903 - Tolosa, 1903 - Tolosa, 1910 - Durango, 1914 - Bermeo, 1915-1922 - Guernica, 1920 - Bilbon, 1922.

(Jon Bilbao-k bere “Eusko Bibliografian” dotriña au edonoiz argitaratuten dala diño.)

12. AGUSTIN DE BURGOA

“Eusquerasco Doctriñe Otsandijoaco. Escolan lenao usetan san escu letrasco cartillatic ata, da gausa batsubetan barristaute.”

Bilbon, 1849.

13.

“Doctrina Cristiana en el vascuence de Llodio, provincia de Alava”.

Londres, 1858.

(L. L. Bonaparte-k argitaratua. Ez dakigu nok egindakoa dan. Ez dauka zer-ikusirik Laudiyoko Abadeenagaz. 50 ale bakarrik argitaratu ziran.)

14.

“La Doctrina cristiana, traducida al vascuence, dialecto vizcaino, variedades de Marquina, Bermeo, Arratia, Centro y Ochandiano.”

Londres, 1862 eta 1864.

(L. L. Bonaparte-ren argitarapena. Aita Uriarte-k gertatua?)

15. BALBINO GARITA-ONANDIA

“Resumen de las cosas mas necesarias de la doctrina cristiana según el Catecismo del P. Gaspar Astete... Cristiñau dotriñaco gauzaric biarrenen icasbide laburtua... Aita Gaspar Astete-ren Datriñac dacartzen eran. Bizcaico berbacuntzan.”

Tolosa, 1889.

Beste argitarapen bat: Durango, 1901.

16. **RESURRECCION MARIA DE AZKUE**

“Kristinauen ikasbide laburtua Baionako Elizterikoa, Lapurrdiko euskeratik Bizkaikora biurtua. Doctrina Cristiana compendiada de la Diócesis de Bayona, traducida del Euskera de Laburdi al Castellano. Kristauen ikasbide laburtua Baionako Elizterikoa, Lapurrdiko Euskeratik Gipuzkoakora itzulia”.

Baionne, 1897.

17.

“Cristauaren dotriña eguiazcoa. Aita Ripalda eta Astetec ipiña, eta Aita Angel Maria Arcos, Jesusen lagundicoac, berriro icustaldi bat eman eta gueitua erderaz, eta apaiz euscaldun batec eusquerara biurtua.”

Durango-n, 1905.

18. **BALBINO GARITA-ONANDIA**

“Catecismo Laburra. Cristiñauaren dotriña laburtuaren lenengo satiya. Ume chiquichuentzat Erromaco Provinziyaco Obispaduai Aita Santu Pio X.ac izentaua. Biurtu dau Bizcaico eusquerara Garita-Onandia-co On Balbino, Durangon Santa Ana-co Arima jaoliac.”

Durangon, 1907.

19.

“Iracasquintziaren lenengo esanpidiac ume gaste-chuentzat cristiñauen Aite Santu Pio Xgarrenac Erromaco eta bere urreco Barrutijetaco icastegui ta echietan iracasteco aguindutacoa beste barruti guztietan zabalduco gurarijaz Bizkaico elexguizon batec eusqueraz ipiniya. Obispoaren baijazaz. Guerniquen, 1907.

20. **PAULO ZAMARRIPA,**

“Kristauaren Dotriña Aita Astetegandik atarata”.

Bilbao, 1907.

21. **ZACARIAS VIZCARRA,**

“Cristiñauaren Jaquinbide laburtua. Bertan dagoz Aita Astete'ren liburuchoco gauzaric bearrenen ezagu erac, berba guichitan, Aita Santuac oraintzuan aguindu daben leguez, zazpi urtegaz conpe-sau ta comulgau bear daben umien oneraco ipiñita. Jainco jaquinquizon edo Teologiac iracazle

Bizcarra'co Zacarias jaunac erderaz ipiñi ta Bizcaico abade batec bertaco eusquerara biurtuta.”

Durango, 1911.

22. **JUAN B. EGUSQUIZA,**

“Cristoren Dotriñaco icasquizunic biarrenac. Ipiñi ditu eusqueraz Juan B. Egusquiza abadiac Gure Jauna artu baño len icasi dagueizan eusqueldun umechuac.”

Bilbo'n, 1911.

23. **ESTANISLAO GUARROCHENA ARZANGUI,**

“Dotriña laburra Aita Santo Amargarren Pio'c Erroma-Lurretaco Elizbarrutia, beeco mallacoentzaco aguindurico Cristiñau dotriñaren lenengo zatiya. Lopez Mendizabal'tar Isaka'c eguiño Vitori-co Gotzai jaunaren baimendun Euscal-Biurtea Gernicar Estanislao Maria-Aita, Capuchinuac Bizcaitarrera tajutua.”

Tolosa, 1914.

24. **ARIANDIAGA'TAR IMANOL,**

“Umiac auto'rtuten eta jaunartuten euskeraz erderaz idatzi dau...”

Bilbao, 1911.

Beste argitarapen bat: Bilbao'n, 1912.

25. **BALBINO GARITRONANDIA,**

“Cristiñauaren icasbidea laburtuta”.

Obispo Jaunaren baimenagaz.

Durangon, 1898.

Beste argitarapen batzuk: Durangon, 1901 - Durangon, 1914.

26. **VITORIA ELEIZBARRUTIA,**

“Vitoria-Eleizbarutirako Kristiñau-Ikasbidea”. Gotzain (obispo) Jaunaren ardurapean Jaungoiko-jakituriaren irakasle-batzordeak atondu dau. Bizkaiko euskeraz. Iru malatan.

(Barrukaldean, oar au dakar: “Kristiñau-Ikasbide aonen euskerea gau'koz zuzenetsi dau Euskaltzaindiak.)

Zornotza'n? 1920.

Beste argitarapen batzuk: Zornotza'n, 1921 - Gasteiz, 1932 - Zornotza, 1934*.

Lenengo, bigarren eta irugarren mallakaz argitarapen bereziak egin dira.

(*) Zirilo Arzubiagak auxe berau argitaratzen dau barrero gerra ostean.

27. **ARIANDIAGA'TAR IMANOL,**

"Irakasti Kistaŕa".
I malea. Adikuntzaldiko Umientzakua.
Abando'n, 1919.

28. **ZAMUDIOKO ABADEA (ZULOAGA)?**

"Kristiñau Ikasbidea".
(Lenengo ta bigarren malea)
Bilbao, 1932.

28 bis.

"Bermeo-co Santa Eufemia Eleizaco Umechuen Dotriñeraco Cristiñau gustiac jaquin bear dabezan jaquingarririk bear-bearrecoenac."

Bermeo, c. 1943 (?).

29.

"Fruniz-co San Salvador Eleizaco Umechuen Dotriñeraco Cristiñau gustiac jaquin bear dabezan jaquin-garririk bear-bearrecoenac."

Bermeo ?, 1943.

30. **JOSE ETXEANDIA,**

"Kristiñau-Ikaskizuna".
Kristiñau guztiak jakin bear dabezan jakin-garririk bear-bearrekoenakaz. Lenengo mallea.
1947.

31. **IMANOL BERRIATUA,**

"Kristiñau Katezismoa."
Zarauz, 1956.

(Kristiñau-Ikasbide onen itaun-erantzunak Alemania-ko Dotriñearen itaun-erantzunen itzulpena dira.)

32. **VITORIA ELEIZBARRUTIA,**

"Vitoria-Eleizbarrutirako Kristiñau Ikasbidea".
Lenengo mallea.

Gasteiz, 1949.

(Irudi askogaz apaindua.)

33. **EUSKALTZAINDIA,**

"Kristiñau Ikasbidea".
Lenengo mallea.
Euskaltzaindiaren ardurapen euskeratua. Bizkai-ko euskeraz.

Bilbao, 1957.

(Jon Bilbao-k G. Manterola-k eta L. Villasante-k euskeratua dala diño.)

34. **BILBO-KO ELEIZBARRUTIA,**

"Bilbo-ko Eleizbarrutirako Kristiñau Ikasbidea".
Gotzain (obispo) Jaunaren ardurapean Jaungoiko-jakituriaren irakasle-batzordeak atondu dau. Bizkai'ko euskeraz. Iru mallatan.

Bilbon, 1951.

(Kristiñau Ikasbide au Vitoria-Eleizbarrutikoa bera da. Juan B. Eguskitzak euskeratua.)

Beste argitarapen batzuk: Bilbon, 1954 - Bilbon, 1957.

(Lenengo eta bigarren mallakaz argitarapen bereziak egiten dira.)

35. **BILBO-KO ELEIZBARRUTIA,**

"Kristiñau-Ikasbidea".
Gotzainen Irakaskintza-Batzordeak eratu ta Bilbo-ko Gotzain Yaunaren aginduz Euskeratua. Bigarren mallea.

Bilbao, 1958.

Beste argitarapen batzuk:

(Lenengo mallagaz argitarapen bereziak egin dira. Irugarren mallea edo dotriña osoa ez zan argitaratu.)

36. **BILBO-KO ELEIZBARRUTIA,**

"Kristau Ikasbidea" - 1.
Madrilleko Katekesi Idazkaritza Nagusiak egiña eta Bilbo-ko Eleizbarrutiaren aginduz euskeraz argitaratua.

Madrid, 1970.

Bigarren argirapena: Madrid, 1978.

37. **BILBO-KO ELEIZBARRUTIA,**

“Kristau Ikasbidea” - 2.

Madrilleko Katekesi Idazkaritza Nagusiak egiña eta Bilbo-ko Eleizbarrutiaren aginduz euskeraz argitaratua.

Madrid, 1970.

Bigarren argitarapena: Madrid, 1977.

38. **BILBO-KO ELEIZBARRUTIA,**

“Kristau Ikasbidea” - 4 (5).

Madrilleko Katekesi Idazkaritza Nagusiak egiña eta Bilboko Eleizbarrutiaren aginduz euskeraz argitaratua.

Madrid, 1970.

Laugarren maillarako Kristau Ikasbide barri bat egiten danean (1973 urtean) 4-gn au bostgarren maillarako uzten da.

39. **BILBO-KO ELEIZBARRUTIA,**

“Kristau Ikasbidea” - 4.

Madrilleko Katekesi Idazkaritza Nagusiak egiña eta Bilboko Eleizbarrutiaren aginduz euskeraz argitaratua.

Bilbao, 1974.

Bigarren argitarapena: Bilbao, 1978.

Aurreko iruren euskeratzea Liturgi Itzultzaileen taldearen lana da. Azkenengo au, ostera, Jaime Kerexeta-k euskeratu eban.

B) “KRISTINAU-IKASBIDE” AZALPENAK:

1. **BARTOLOME OLAECHEA,**

“Cristinauben Dotrinia, d. Bartholome Olaechea Laucarizco Cureac bere Elesatean Jai Domeca guztietan expliquetan davena leguez”.

Vitorian, 1763.

Beste argitarapen batzuk: Bilbao, 1774 - Vitoria, 1780 - Vitoria, 1785 - Tolosa, 1787 - Valladolid, 1802 - Bilbao, 1814 - Bilbao, 1825 - Bilbao, s.d. - Bilbao, 1846 - Bilbao, 1848 - Bilbao, 1855 - Bilbao, 1864 - Bilbao, 1871 - Bilbao, 1872 - Bilbao, 1873 - Bilbao, 1883 - Bilbon, 1892 - Tolosa, 1894 - Tolosa, 1904.

2. **JUAN ANTONIO MOGUEL,**

“Confesino ona edo ceimbat gauzac lagundu biar deutseen Confesinuari ondo egiña izateco. Ataraten dau arguira bizcaico eusque-ran, D. Juan Antonio Moguel ta Urquiza Marquinaco Urico Cura edo Arima Jaoliac.”

Vitorijan, 1803.

Beste argitarapen batzuk: Bilbon, 1853 - Bilbon, 1854 - Tolosan, 1884 - Bilbon, 1897.

3. **JUAN ANTONIO MOGUEL,**

“Christinaubaren Eracuspena edo Doctrina christiana. Cefnian agertu, ta adierazoten dirian astiro itaune eranzunacas Christinaubaren ezaguerara eldu ezquero sinistu, escatu, eguin, ta artu biar ditubanac. Ateraten dau arguitara Vizcaico Euscaldunentzat gauza onen ganian onduen artuac, ta aguertuba izan dirian liburubetatic Dn Juan Antonio Moguel ta Urquizac Marquinaco Urico Curiaac.”

441 orrialdeko liburu au argitaratu barik dago, Derio-ko Euskal Liburutegian.

4. **JUAN ANTONIO MOGUEL,**

“El Catequista vascongado - Cristau Eracastle Euscalduna.”

Au ere argitaratu barik dago. Esku-idatzia Bilboko Diputaziñoko Liburutegian dago. 388 orri ditu.

4 bis. **JUAN JOSE MOGUEL,**

“Baserritar nequezaleentzato escolia, edo icasbi-diac, guraso justu, ta jaquitun familia ondo azi ebe-neen exemplu, ta eracutsijetan emoten dau arguitara Vizcaico eusqueraan J.J.M.M.C.”

Bilbon, 1816.

Beste argitarapen batzuk: Vitorijan, 1845 - Barcelona, 1880 - Bilbon, 1886.

5. **FR. BARTOLOME SANTA TERESA,**

“Jaungoicoaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac, aita prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco Predicatoriac ateraac”. I. Zatiija.

Iruñean, 1816.

“Jaungoicuaren amar aguindubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac, aita prai Bartolome Santa

Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco Predicatoriac aterac". II. Zatiija.

Iruñean, 1817.

"Eleisaco zazpi Sacramentuben icasiqizunac, aita prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortoceco Prioriac ateraac."

III. Zatiija.

Iruñean, 1919.

Beste icasiqizun batzuk ere idatzita eukazan. Ona emen leenengo zatiaren Itzaurrean diñoana: "Au aintzat artuten badozu, Iracurlaac, laster ateraco da bigarren Zatiija. Baita aren ondoric Sacramentubac, Credua, ta Aita gueuria bere. Baita guero (cerubac lagunduten badeust) Jesu Cristoren, ta Ama Virginiaren gracijazco Jazuen ondraraco, Santuben ondo Esaneraco, ta arimeen oitura oneraco Sermoiaac bere. Oneen guztion biarric gacheena eguinda daucat neure moduban" (Ik. VII or.).

6. FR. PEDRO (JOSE PATRICIO) ASTARLOA,

"Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco Catecismua. Euretan aurquituco dabe Arima-zain euscaldunac, euren Elextar, edo Feligresai predicadu biar deutzen icasbidia: baita bere Cristinau euscaldunac, cer jaquin, eta eguin biar daben. Componduba Aita Fr. Pedro Astarloa S. Franciscubaren seme, Lectore Jubiladu, Burgosco Provincijaco Aita, eta Cantabrijaaco Defnidoriaac.

Lenengo Liburuba: Bilbon, 1816.

Bigarren Liburuba: Bilbon, 1818.

Beste argitarapen bat: Durango-n, 1903.

7. PEDRO ANTONIO ANIBARRO,

"Curutze Santearen Aita Gure ta Ave Marien ganeco eracusaldiaac Aita Frai Pedro Antonio Añibarroc ifiniac eta orain moldera emoten diranac, Cristiñau euscaldunen oneraco."

Durango, 1897.

Jon Bilbao-k, urte berean eta Durangon bertan, egindako beste argitarapen bat ere aitutzen dau; baiña orrialdetan leenengoaren erdi ingurukoa.

Beste alde batetik, gogoan euki bear dogu argitaratutako liburu au argitaratu barik gelditu diran liburu aundi biren ataltxu bat baiño ez dala. Arantzazuko Frantziskotarren komentuko artxibuan aurkitzen dira eta izen-buru au daukee: "Misiolari euscalduna, cristiñaudotriña ta sermoiaac Bizcai-errietan iracasten".

8. ANDRES ITURZAETA,

"Aita Gaspar Astete-ren Icasbide Cristinaucorran Azalduera Laburrac. On Andres Iturzaeta eta Eguia, Ochandiano-co Arimazainac, euscaraz iminiac."

Durangon, 1899.

8 bis.

"Edesti Jaungoya". Gaudia'ren irazkunde'tik Goteun-eto'rkunderaite euzkeldun umientzako atondu dau Kistar-Irakaskintza Zabalkundia deritxon Bizkaiko Abade Bazkuniac."

Bilbao'n, 1914.

9. JON KURUTZ IBARGUTXI,

"Kristiñau-Ikasbide-Atzalbena."

I. Siñiskaiaac. Bilbao, 1959.

II. Jaungoikoaren Legeko Aginduac. Zornotza'n, 1925.

Jaungoikoa'ren ta Eleiza'ren Agindua. Bilbao, 1953.

III. Eleiz Ama Deunaren ikurtonak edo sakramentuac. Zornotza'n, 1932.

Eleiz Ama Deunaren Ikurtonak edo Sakramentuac. Bilbao, 1954.

IV. Otoia. Bilbao, 1955.

"Geroko bizitza (La vida futura)". Bilbao, 1954.

10. JON KURUTZ IBARGUTXI,

"Edesti Deuna".

Zornotza'n, 1936.

**“AITA GUREA” BIZKAIERAZKO KRISTINAU-
IKASBIDEETAN**

1

AYTA gurea,
Ceruetan cagocana.
Sâtificadua icandila cure icena.
Etorrividi
gugana cure Ereynua.
Eguinvidi cure borondatea,
nolan Ceruan, alan lurrean
emon eguigucu egunean
eguneango gure oguia
da parcatu
eguigucz
gure pecatuac,
guc gueure cordunay
parquetan deustegunaleguez.
da echiezegucu
jausten tentaciñoan,
baya libradu gúaiguicuz
gach gustiric.
Amen Iesvs.

1. Doctor Betolaca,
“Doctrina Christiana en Romance y Basquence...”
Bilbao, 1596.

(Mitxelena-k, BRSVAP albistarian egindako argitalpenetik
artua: Ik. 1955) urtea, 93 or.).

2

Pater noster, aita gurea
ceruetan zagocana
santificadudila
cure icena,
vetor gugana
cure erreñua,
eguinbidi cure vorondatea
celan ceruan,
alan lurrean,
gueure ogui
egunean eguneangoa,
egun igucu;
parcatu eguigucz
gueure corrac,
celan gueuc
parcaetan deustegun
gueure cordunai.
Echice eguiguzu iautzen tentaciñoan,
baea gaguiguz Iauna gacherean libradu.
Amen Iesus.

2. Martin Ochoa de Capanaga,
“Exposición Breue de la doctrina
christiana compuesta por el P.M. Geronimo de Ripalda... Y
traducido del lenguaje castellano al bascongado por el licen-
ciado...”
Vilbao, 1656.
(Ik. 4-5 or.).

3

Ayte gure Zeruetan zagozana.
Santifiquedu dala zure Vzena.
Betor guguena zure Erreynue.
Cumpli bidi zure borondatea
zelaan ceruen alaan lurrean.
Emon eguiguzu egunean eguneango oguie.
Parcatu eguiguzus gueure pecatuec
guc gueure zorduney parcaetâ
deustegueena leguez,
Ce eguiguzu echi jausten tentaciñoan,
Baye libredu gaguizus gauc deungue
gustietaric.
Amen Iesus.

3. “Viva Jesus. IHS. Y sea para honra y Gloria suya este Com-
pendio, o suma breve de la Doctrina Christiana...”
1660 ingurukoa.

4

4. Nicolas de Zubia,
"Doctrina christiana en Bazquence"
San Sebastian, 1691.

Aita gurea Ceruetan zagozana
santificadu dila zure izena:
vetor gugana zure uorondatea,
nolan zeruan alan lurrean:
egunean eguneâgo gure oguia emuneiguzu egun.
Parcatu eiguzu gure becatuac,
guc parcatuten deusteguna leguez geure
zordunai:
ez eiguzu ichi tentacionen iaustitem:
guardadu ta libradu gaiguzu gaiz gustietatic
Iauna.
Amen Iesus.

5

5. Agustin Cardaberaz,
"Dotrina cristiana edo Cristiñau
dotrinea".
Iruinean, 1762?

Aita gurea, Ceruetan zagozana:
santificadu bedi zure icena:
betor gugana zure Erreinua:
eguin bedi zure borondatea,
nolan Ceruan, alan Lurrean:
Egun iguzu gure egunean eguneango oguia:
eta parcatu eiguzuz gure zorrac,
guc gure zordunai parcaetan deusteguzuna
leguez:
eta ichi ezceiguzu tentaciñoan jausten:
baia libradu gaguizuz gacheric.
Amen.

6. Bartolomé Olaechea,
"Cristinauben Dotrinia"
Vitorian, 1763.

6

Aita guria Cerubetan zagozana:
santificadu bedi zure icena,
betor zure erreñuba gugana:
eguin bedi zure borondatia
celan Ceruban alan lurrian,
emon eguiguzu gaur gueure
egunian eguniango oguija,
eta parcatu eguiguzuz gueure zorrac,
gueuc gueure zordunai parcatuten
deuseguzan leguez:
eta ichi eceiguzu jausten tentaciñoian,
baicic libradu gaguizuz gachetic.
Amen.

(Ik. Bostgarren argitalpena,
Bilbon, 1814 urtean egiña, 6 or.)

Aita guria Zerubetan zagozana:
santificadua izan bedi zure izena,
betor zure erreñuba gugana:
eguin bedi zure borondatia
zelan Zeruban alan lurrian.
Emon eguiguzu gaur gueure
egunian eguniango oguija;
eta parcatu eguiguzuz gueure zorrac
gueuc gueure zordunai parcatuten
deutzeguzan leguez:
eta ichi ezeiguzu jausten tentaziñoian,
baizic libradu gaguizuz gachetic.
Amen.

(Ik. Amalaugarren argitalpena,
Tolosan, 1904 urtean egiña, 13 or.)

7. Juan Antonio Moguel,
"Cristiñaubaren jaquinvidia"
Vitorijan, 1805.

7

Aita guria cerubetan zagozana:
santificadu bedi zure icena;
betor gugana zure erreinuba;
eguin bedi zure borondatia,
nolan ceruban alan lurrian.
Egunian eguniango gueure oguija
egun iguzu,
eta parcatu eiguzuz gueure zorrac,
gueuc gure zordunai parquetan
deutzeguzan leguez:
eta ichi ez eiguzu tentacinoian
jausten;
baña libradu gaizuz gachetic.
Amen.

(Durangon, 1896 urtean egindako argitalpenetik artua, 4 or.)

Aita guria zerubetan zagozana:
santifikadu bedi zure izena;
betor gugana zure Erreinua;
egin bedi zure borondatia,
nolan Zeruban alan lurrian.
Egunian eguniango geure ogija
emon eiguzu,
eta parkatu eiguzuz geure zorrak
geuk gure zordunai parketan
deutzeguzan legez:
eta itxi ez eiguzu tentazinoian
jausten;
baña libradu gaizuz gatxetik.
Amen.

(Tolosan, 1920 urtean egindako argitalpenetik artua, 4 or.)

8

Aita guria, cerubetan zagozana:
santutu, edo santificadu bedi zure izena;
betor gugana zure erreinuba;
eguin bedi zure vorondatia,
celan ceruban, alan lurrian.
Egunian eguniango gueure oguija egun iguzu,
edo gaur emon eiguzu;
parcatu eiguzuz gueure zorrac,
gueuc gueure zordunai parcatuten
deutzegubezana leguez;
ez eiguzu ichi jausten tentacinoian,
baña libradu gaizuz gachetic.
Amen.

8. Fr. Pedro Astarloa,
"Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzu-
betan azalduten dan Erromaco catecismua..." II liburua.
Bilbon, 1818.

(L eta LI berbaldietatik artua.)

9. Laudiyoco Abade jaunen
"Cristiñau Doctrinia..."
Bilbon, 1828.

9

Aita guria Ceruetan zagozana:
santificadu bedi zure ucena;
betor gugana zure erreinua,
eguin bedi zure borondatia
celan Ceruan, alan Lurrian.
Emon eguiguzu gaur gueure egunian
eguniango oguiya:
eta parcatu eiguzuz gueure zorrac,
gueuc gueure zordunai parquetan
deutseguzan leguez:
eta ichi ez eiguzu tentaciñoan yausten:
baya libradu gaguizuz gacheric.
Amen.

(1828-ko argitalpenetik artua: ik. 4-5 or.)

Aira guria ceruetan zagozana:
santificadu bedi zure icena;
betor gugana zure erreinua,
eguin bedi zure borondatia
celan ceruan, alan lurrian.
Emon eguiguzu gaur egunian eguniango
oguiya:
eta parcatu eiguzuz gueure zorrac,
gueuc gueure zordunai parquetan
deutseguzan leguez:
eta ichi ez eiguzu tentaciñoan yausten:
baya libradu gaguizuz gacheric.
Amen.

(1877 urtean Bilbon egindako irugarren argitalpenetik artua: ik. 4 or.)

10. Agustín de Burgoa,
"Eusquerasco Doctrinē
Otsandijoaco".
Bilbon, 1849.
(Ik. 2-3 or.)

Aita guria Cerubetan saosana,
santificaduba isen dilla sure isena,
betor sure Erreiñuba gugana,
ein bedi sure borondatia celan Ceruban,
alan lurrian.
Egunian eguniango gueure oguija
gaur emon eigusu;
parcatu eigusus gure sorrac,
gueuc gure zordunai parcatuten
dotsagusena les,
da eseigusu ichi tentaciñuen jausten,
baie librau gaisus gachetic.
Amen Jesus.

11. BUSTURIKO BIKARIAKOA:
"Cristinau Doctrinea bere esplicacino laburragaz..."
Bilbon, 1849.

11

Aita gurea, zeruetan zagozana,
santificadua izan bedi zure izena:
betor gueugana zeure erreinoa;
eguin bedi zeure borondatea
zelan zeruan alan lurrian.
Emon eiguzu gaur gueure egunian
eguniango oguia;
ta parcatu eiguzuz gueure zorrac,
gueuc gueure zordunai parquetan
deutseguzan leguez;
ta ichi ez eiguzu tentaziñoan jausten;
baña libradu gagizuz gachetic.
Amen.

(Tolosan, 1910 urtean egindako argitalpenetik artua, 4 or.)

Aita gurea, zeruetan zagozana,
santificadu bedi zure icena,
betor gugana zure erreinua,
eguin bedi zure borondatea,
zelan ceruan alan lurrian.
Emon eiguzu gaur gueure egunian
eguniango oguia,
ta parcatu eiguzuz gueure zorrac,
gueuc geure zordunai parquetan
deutseguzan leguez,
ta ez eiguzu ichi tentaziñoan jausten;
baña libradu gagizuz gachetic.
Amen.

(Durango, 1914 urtean egindako argitalpenetik artua, 4 or.)

12

Aita gurea ceruetan zagozana;
santificadu bedi zure icena;
betor gugana zure erreinua;
eguin dedilla zure borondatea
celan ceruan alan lurrian.
Eguneango gueure oguia gaur iguzu;
parcatu eiguzuz gueure zorrac,
guc gueure zordunai parcatuten
deutseguzan leguez;
ichi ez eiguzu tentaziñoan jausten
libradu gaizuz gacheric.
Amen.

12. Pedro Antonio Añibarro,
"Curutze Santearen Aita Gure ta Ave Marien ganeco era-
cusaldia..."
Durango, 1897.

13

Zeruetan zagozan gure Aita,
donetua izan bei zure izena,
betorrigu zure agintaritzea,
egin bei zure nai izatea zeruan legez lurrian.
Egunean eguncango geure ogia emon eiguzu,
ta parrkatu eiguzuz geure zorrac
geuk geure zordunai parrkatuten dautseguzanez.
Eta ezeiguzu esetsian iausten itsi;
baña gorrdre gaizuz gaitzetatik.
Arren bai.

13. Resurrección María de Azkue,
"Kristinauen Ikasbide laburrtua,
Baionako Elizterikoa, Lapurrdiko
euskeratik Bizkaikora biurrtua"
Baionan, 1897. (11 or.)

14

14. Andres Iturzaeta,
"Aita Gaspar Astete-ren Icasbide Cristinaucorraren azal-
duera laburrak".
Durangon, 1899.
(62-68 orrietatik artua).

Aita gurea ceruetan zagozana,
santificadua izan bedi zure icena;
betor gugana zure erreñua;
eguin bedi zure borondatea celan ceruan
alan lurrean.
Egunean eguneango gueure oguiya
gaur emon eguiguzu;
parcatu eguiguzuz gueure zorrac,
guc gueure zordunai parcatuten deutseguzan
leguez;
ez eguiguzu ichi esetsiyan edo tentacinoan
jausten,
baña librau gaguizuz gachetic.
Amen.

15

Aita guria zerubetan zagozana.
Santificadu bedi zure izena.
Betor gugana zure erreñua.
Eguin bedi zure borondatia zelan zeruan
alan lurrin.
Gueure eguneroco oguiya, gaur emon eguiguzu.
Ta parcatu eguiguzuz gueure zorrac,
gueuc gueure zordunai parcatuten deutzaguzan leguez;
Ta ez eguiguzu ichi jauzten tentaziñuan;
Ta libradu gaizuz gachetic.
Amen.

15. Balbino Garita-onandia,
"Catezismo laburra..."
Durangon, 1907 (11-12 or.)

16

16. Paulo Zamarripa,
"Kristauaren Dotriña Aita Astete-gandik atarata".
Bilbao, 1907 (4 or.)

Aita gurea, zeruetan zagozana,
donetu edo santificadu bedi zure izena,
betor gugana zure erreñua,
egin bedi zure guraizatea zelan zeruan
alan lurrean.
Emon egiguzu gaur geure eguneroko ogia,
ta parkatu egiguzuz geure zorrak
geuk geure zordunai parkatuten deutzaguzan
legez
eta ez egiguzu ichi esetsi edo tentaciñoan
iausten
eta gorde gaizuz gachetik.
Amen.

17. Zacarias Vizcarra,
"Cristiñauaren Jaquinbide Laburtua"
(Bizcaino abade batec bertaco eusquerara biurtuta)
Durango'n, 1911. (10 or.)

17

Aita Gurea, zeruetan zagozana,
santutua izan bedi zure izena.
Betorquigu zure erreñua.
Eguin bedi zure borondatea,
zelan zeruan alan lurrean.
Egunean eguneango gueure oguia gaur emoiguzu;
eta parcatu eguiguzuz gueure zorrac,
gueuc gueure zordunai parcatuten deutzeguzan lez;
eta ez eguiguzu ichi tentaziñoan jausten;
baña aldendu gaguizuz gachetic.
Amen.

Obeto: Gueure Aita
donetua edo onetziya
aguintia
naya, guraria
zeruan leguez lurrean bere

esetziya, edo zitzaldia

18. Juan B. Egusquiza,
"Cristoren Dotriñaco icasquizunic biarrenac..."
Bilbo'n, 1911. (8 or.)

Aita gurea, zeruetan zagozana,
santificadu bedi zure izena,
betorquigu zure erreñua,
eguin bedi zure borondatea zeruan lez
lurrean be.
Emoiguzu gaur gueure eguneroco oguia,
parcatu eiguzuz gueure zorrac
gueuc gueure zordunenac parcatuten
dautseguzan lez,
eta ez eiguzu ichi tentaziñoan jausten
baña gachetic jagon gaizuz.
Amen.

19. Ariandiaga'tar Imanol,
"Irakasti Kista'ra" (I malea)
Abando'n, 1919'gn.

Adikuntzaldiko umientzakua.
(23-24 or.)

Ata guria, zerubetan zagozana,
santipikadu bedi zure ixena,
betor' gugana zure erreñuba;
egin bedi zure borondatia zelan zeruban
alan lufian.
Emon eiguzu gaur' geure egunian-eguniango ogija;
ta parkatu eiguzuz geure zo'arak,
geuk geure zo'rdunai parketan dautseguzan lez;
ta itxi ezeiguzu tentaziñuan jausten,
baña libradu gagixuz gatxetik.
Amen.

Geure goi-Ata:
eure ixena donetsi bedi;
eure ala bel;
eure gurea egin bedi donokijan lez
ludijon be.
Emoskuk gaur' be beuretzako egunoro-ogija;
azketsi geuri geure zo'arak
geuk be geure zo'rdunenak dazketseguzan
lez,
ta ziltxaldijan ezkizkezak;
gatxetik jabon baiño.
Olantxe.



Auzotar eta seniderik geienak etorri ziran omenaldira. Eskerrik asko.

20. Gazteiz'ko (Vitoria) Eleizbarrutirako "Kristiñau-Ikasbidea". Bizkaieraz.

20

Aita gurea zeruetan zagozana,
santificatu bedi zure izena,
betor gugana zure erreñoa,
eguin bedi zure borondatea,
zelan zeruan alan lurrian.
Jauna, egunian eguniango gueure oguia
gaur emon eguizu,
parcatu eiguzuz gueure zorrac,
guc gure zordunai parcatzen deutseguzales
eta ez eiguzu ichi tentaziñoan jausten
baña bai libragaizuz gachetic.
Amen.

(Lenengo Malla) (8 or.)
Vitoria.

Aita gurea, zeruetan zagozana,
santifikadu bedi zure izena,
betorkigu zure erreñoa,
egin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be.
Emoiguzu gaur gure eguneroko ogia,
parkatu eiguzuz gure zorrak,
geuk gure zordunai parcatzen dautseguzan lez,
eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten,
baña gatxetik jagon gaizuz.
Amen. (1)

Lenengo Mailea
Vitoria, 1949. (6 or.)

21

Aita gurea zeruetan zagozana;
santifikadu bedi zure izena;
betorkigu zure erreñoa;
egin bedi zure borondatea, zeruan lez lurrean be.
Emoiguzu gaur gure eguneroko ogia;
parkatu eiguzuz gure zorrak,
geuk gure zordunai parcatzen deutseguzan lez;
eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten;
baña gatxetik yagon gaizuz.
Amen.

Aita gurea zeruetan zagozana,
santificado bedi zure izena;
betor gugana zure erreñoa,
eguin bedi zure borondatea
zelan zeruan alan lurrian.
Jauna, emon eguizu gaur egunian eguniango
gueure oguia;
parcatu eiguzuz Jauna, gueure zorrac
guc gure zordunai parcatzen deusaguzan lez;
ez eiguzu ichi tentaziñoan jausten,
baña librau gaizuz gachetic.
Amen.

(Bigarren Malla) (9-10 or.)
Vitoria.

(1) *Oaña*: Otoitz au Bizkaiko efi guztietan bardin ez da esaten,
era askotan baño: era guztietatik auxe autu dogu ta guztiak
oraxe jotea ondo litzake.

(Iru malatan) 2^{gn}. Argitalbena.
Zornotza'n, 1921. (45-46 or.)

Aita gurea, zeruetan zagozana:
santifikatu bedi zure izena;
betorkigu zure erreñoa;
egin bedi zure borondatea
zeruan lez lurrean be.
Emoiguzu gaur
gure eguneroko ogia;
parkatu eiguzuz gure zorrak
guc gure zordunai parcatzen dautseguzan lez;
eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten,
baña gatxetik jagon gaizuz.
Amen.

21. "Kristiñau-Ikasbidea"
Bigarren mallea.
Gotzañen Irakaskintza-Batzordeal
eratu ta Bilbo'ko Gotzain Yaunaren aginduz euskeratua.
Bilbao, 1958. (3 or.)

22. "Kristau-Ikasbidea"
(1, 2, 4 maillak)
Bilbo-ko eleizbarrutiaren
aginduz Katekesi Idazkaritza Nagusiak argitaratuak.
Madrid, 1970.

Gure Aita, zeruetan zarana:
santu izan bedi zure Izena,
etor bedi zure erreñua,
egin bedi zure naia,
zeruan bezela lurrean bere.
Emoiguzu gaur egun ontako ogia;
parkatu gure zorrak,
geuk bere gure zordunai
parkatzen dautsegun ezkerro;
eta ez gu tentaldira eroan,
baiña atara gagizuz gaxetik.
Amen.

OARRA: Zerrenda au amaitzeko, ona emen beste liburu batzue-
tan aurkitzen diran "Aita gure" batzuk.

23.

Aira geurea, zeruetan zagozana,
santifikadu bedi zeure izena,
betor geugana zeure erreñua,
egin bedi zeure borondatea zelan zeruan
alan lurrean.
Emon egiguzu gaur geure egunean-eguneango
ogia;
parkatu egiguzuz geure zorak
geuk geure zordunai parkatuten dautseguzan
legez,
ta itzi ez egiguzu tentaziñoean jausten,
baina libradu gagizuz gaxetik.
Amen.

(1902 urtean erabilten dana)

24.

Geure Aita Goikoa,
zeure izena donetsi bedi,
zeure ala belkigu,
zeure gurea egin bedi donokian lez
ludian be.
Emoguzu gaur be geuretzako ogi egunokoa;

azketsi geuri geure zora
geuk be geure zordunena dazketsegun lez,

ta ziltzaldian ez gagizuz itzi,
gaxetik jabon baino.
Olantxe.

(1902 urtean Arana-Goiri'tar Sabinekin zuzendua).

(Ikusi: Arana-Goiri'tar Sabin, "Análisis y corrección del
PATER NOSTER del euzkera usual", "Artículos publicados en
la revista "Euzkadi". Bilbao, 1908, 161-162 or.)

25

Aita gurea zeruetan zagozana,
donetsia izan bedi zure izena,
betor gugana zure erregekuntzea,
egin bedi zure naia zelan zeruan
alan lurrean.
Egunean eguneango gure ogia
gaur emon eiguzu
ta parkatu eiguzuz gure zorrak
gure zordunai guk parketan dautseguzan leguez.
Ez ichi zirikaldian jausten,
ezpabe gorde gaizuz gaxetik.
Arren.

25. 1902 urtean, Aita gurearen Eleizan, Jerusalem, jarritakoa.

(Ikusi Arana-Goiri'tar Sabinen liburua, 231 or.)

26. Jaungoiko-Zale'ren idaztijak,
"Otoi-idaztiñua"
Vilariño, Josulaun Abak egin
ebanetik euzkeraldia.
Zornotza, 1919 (50 or.)

26

Geure Aita Goikua,
zeure izena donetsi bedi,
betorkigu zeure erreñua,
egin bedi zeure naya zeruan lez lurrian be.
Emoguzu gaur be eguneroko geure ogia,
parkatu geure zorrak geuk geure zordunenak
parkatzen dautzeguzan lez;
eta ez itxi zirikaldian jausten,
baña gaxetik yagon gagizuz.
Olantxe.

Geure Ata Goikua,
zeure ixena donetsi bedi;
zeure ala bel;
zeure gurea egin bedi donokijan lez
ludijon be.

Emoiguzu gauř be geuretzako ogi egunerokua;
azketsi guri geure zořak,
geuk be geure zořdunena dazketsegun letz;
eta ziltzaldijan ezkagikuz itxi,
gatxetik jabon bařo.
Olantxe.

27. Zabala-Arana'tař Joseba,
"Donokirako bide zuzena eta
eskijera. Kistař-Otoidija".
Bilbao, 1935 (30 or.)

1984-ko maiatzean.



CRISTINAUBEN

DOTRINIA

D. BARTOLOMÉ OLAECHEA.

Bubeco hospitala osaturq
erretorio, leucario eta sariak, jai apocriptas espliketan
etan laguna.

LIBRUCHU ONI-IPINCENJAGO
CURUTCE SANTUBARN ESTACIONIA BAÑOLEENAGO
MEZA ONDO ENZUTECO MODERA.

ONDA AMASIGARRIBEA

REIMPRIMIDU DA

BIAR DAN LEGUEZ.

BILBON

Editore Garcia-ren, librerijan,
Cinturerija Callian.

✠

JAUNGOICUAREN

AMAR AGUINDUBEETACO

AZQUENECO BOSTEEN

ICASIQUIZUNAC,
AITA PRAI BARTOLOME SANTA

Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco

Predicadoriac aterac.

II. ZATIJA



BIAR DAN ONDO IZATIAGAZ.

Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillan.
1817 Urtean.

GALARTZA AUZOAN (1)

Galartzan, 1984garreneko irailaren 9'an, Gipuzkoa'ko gure AMA Birgiñaren egunean, auzo onetako gizon ospetsu batzuk, asmau eben, billera bat egitea, bertan jaiotako giñanok, orain urtetxoak dirala, aspaldian ikusi barik gengozelako.

Gogo onenagaz asmatua zan, baiña ez zan samurra, danok batutea izentauko egun batean, oso zabaldua gengozelako, Europa aldean ta España'ko lurretan ere bai, gero izentauko dodan lez.

Egun eder gertatzailleak Egiliorreko iru anaiak izan ziran ta Julian Zaloña.

Deitu ona ta ara, ta geienak erantzun eben, baiña danak ez.

ALKARTU GIÑANAK

Gure lagunen DEIA erantzun genduanak zazpi izan giñan.

Egiliorreko basetxetik iru anaiak etorri ziran.

Nagusiena ZUAZUTAR EUGENIO, urte luzeetan Ameriketako KOLONBIAN egonda, sinismena zabalzen, gure Iparragirrek esan eban bezela:

EMAN TA ZABALZAZU MUNDUAN FRUTUA egiten.

Lan ederrak eginda ta ugariak, Karmeltarren ikasteetxeetan.

Egiliorreko bigarren anaia, au be Karmeltarra, urte askotan Austrian egonda, lenengo ikasten ta gero ikaskaiak erakusten. Orain Erromako ikastxe nagusian dago irakusten.

Iru garren anaia, gure artean dago, emen Bizkaian, ZORNOTZAN.

Erri orretako ikastetxe Karmeltarren Zuzendari dago aspaldian.

Lenago lau urteetan Karmeltarren Nagusia edo PROBINZIALA izan zan. Españeko iparaldian.

JULIAN ZALONA, eliz-barrutiko abadea, urte askotan Misiolari Ekuadorren egonda, ta orain Urkiolako eliznagusian lanean dagona, emengo, Bizkaiko arimari laguntzen kristiñau zintzoak izan daitezcan. Zaloñan jaioa.

PRUDENTZIO GARAY, basterraldeko semea, au be eliz-barrutiko abadea. Araba ta Gipuzkoako erritan egondakoa; urte askotan ta orain, Gazteizko eliz-naguzi baten arimen alde lanean.

JULIANA OTXOA, Errartenako basetxekoa, lekai-mea, Bergarako, Marianistetan lanean dagona, 55 urte onetan, erakusten neskatoei.

Azkenez, lerro oneik idazten dituana, erriko-semea, maizua.

Maixotzat egonda, lenengo Marianistetan, ta gero ikastola Nazionaletan: Elgoibarren, Aretxabaletan, Gauegiz de Arteagan ta emen Bilbon.

Orain Jubilatua, baiña, oindiño jarraituten dauana, Bilbo'ko Euskarezalean euskeraz erakusten jente nagusiei. Kukuzulon jaioa.

ETORRI EZ ZIRANAK

ROKE GAZTANAGA, Askotixako semea, Trinitarra. Leen Madrillen txauburua izandakoa, ta orain Barzelonan be bai.

Gizakume argia, apala ta zintzoa.

JOSE LUIS ETXEBERRIA, kukuzuloko semea, Jesuitea.

Aspaldian Benezuelako lur zabaletan dagona, ango jenteari lenengo

OGIBIDEA erakusten, ta gero zeruko bidea be bai.

Leen Ameriketako Jesuiten artean Probinziala izandakoa.

ZORTZI lekaime eziran etorri, ta oneik dira:

Iru Tauleroko baserrikoak, Luzia, Maria, ta Modesta Zubizarreta. Bi dagoz Mendaro'ko lekaime etxean, gaztetxoari erakusten Agustinetan.

Ta irugarrena, Aretxabaletako, Agustinetan, erriagatik erregutzen.

Konsolacion Urrutia, Goitikoko alabea, Mirenen Elkarteetan, IRUNEN erakusten gazteari.

Maria Ugalde, Ametzako alabea, Aretxabaletan Agustinetan lekaime dagona, erriaren alde erregututen.

Felisa Ugalde, Ametzako alabea, Mercedaria de la Caridad, Arrasaten lekaime bezela ta erakusten ango neskatoei.

Josefa Zaloña, Julian Zaloñaren arrebea, zaloñan jaioa ta baserrikoa. Orain Arnedo'n dagona, Klarisa artean.

Sinforosa Etxeberria, Mendaroko lekai-meetxean dagona, erakusten. Kukuzuloko alabea.

Jente guzti au, Galartzako 15 basetxeetan jaiotak dira.

Baiña gauza liraña, bertan ez da iñoiz egon ezelango IKASTOLARIK. ta ainbeste ERAKUSLARI, zelan agertu leike? Guzurra dala esan lei.

ETXEBERRI'tar ISIDOR

URRENGOETXEA'TAR TIMOTEO

Nor ete dogu ain jatorra abizen euskotar daukon gizon au? Bizkaitar Bermeo'ko musikari entzutetsu bat, laurogeita bost urte daukozana. Arriai be abestu eragin eiduntse. Iru illebete dirala, Almuñekar Andaluzi'ko erritarrak Urrezko Aguakate (aguakate zugatz-mueta baten igalia da) sari baliotsua emon eutsoen. Ori artzeko berak be egingo eutsen laguntzaren bat. Bai, eta ez txikia.

Urrengoetxeak Almuñekar errian Eres-Taldea irasi eban. Origaitik bera da eres arloko aurrelari angoentzat.

Orain bere alabeagaz Bilbo'ko Iralabari'n etxetxu baten bizi da. Laurogeita bost urte daukoz eta, ez dau eres-lanik egiten. Eta pianua euki etxeko areto txikian arren eztau joten. Ementxe ei dabil, errenka ta tarraska, aulki baten leunkiari jausi-arte Sari edo besuza emon eutsoen garairako gertau eban idazlana, berak, Urrengoetxea'k sakeletik aterata polito tolesturik eukazan; idaz-orriak, dardaratsu abots baiña sendoaz, asi zan irakurten:

"Almuñekar argitsu ta zoragarriari". Granada'ko erritxu orren ekandu, oitura ta edertasunari abesti bat da. Orain ango Aguakate Lagunen Batzokiak eta batera erriko Udaletxeak Urrezko Aguakategaz omena egiten deutso. Berak diño: "Almuñekar erria ain eragille eta ain ona izan iat! Eresia egiteko goi-argia edo goi-eragiña erraz-erraz sortu jatan".

Eta emen Bizkaia'n bizi izanda, zelan Almuñekar'eraiño joango ete zan? Baleiteke opor-aldiak egiteko ara joan izatea eta an musikari agertu. Berak diñon lez erri onen ezaguerarik ezeukan geografiz jakiten dana baiño. Bein an egozanetik, askotan joaten da bertara, eta bertan aldi luzeak, egin erritarrek asko gura dautsoelako. Almuñeka'ek beroaldeko giro ederra daukolako, Europan bakarra, aitatu dogun aguakate igalia ugariz elduten da. Eta esan dogunez Almuñekar-tarrak Urrezko Aguakatea emon eutsoen saritzat erriaren alde kulturean maisu musikari lez ainbeste bear ta alegin egin ebalako.



MANSO'tar Pedro Gotzain Jaunak Logroño'n, 1.600n. urtean.

Lenengoz an egin eban eres lana Almuñekar izena artu eban biribilketa deritxona izan zan. Beingoan, orduarte an ez egoan Udal Eres-Taldea eratuteko zeregiña artu eban. Urrengoetxea Maixuak auxe diñosku: "solfake-tarik ez ekien mutikotxuak neuregana etorten ziran, eta astiro-astiro ta biotz-zabalez irakasten neutsen". Zalantza barik, maisuak trebetasun andia eukibear eban, ogetabost ereskiñedun Eres-Taldea, edozein eres sorta joteko gauza zana bost illebete barruan eratu ta osotzeko.

Ez aitzu Maisu onen bizitza eres-musika sortu ta irakasteko ezkeinduta egon zala! Josu Lagunen ikastetxean urte askotan zear eres-irakasle ta organujotzaille izan zala, eta bere alabeak esaten dauan lez "arriai be abestuerazoteko trebe dala".

Bilbo'n bere etxeko aretotxuren ormak bere ereszale ta bear andien autorle dira. Bere ikasleen omenez ta eskeronez beterik dagoz, eta diño: "Irakasle onenari" edo "I-

paraldeko samurtasun ta Egoaldeko irudimenaren Maisu jaun onenari".

Egoaldeko alderdiakaz lilluratu egon arren, bere Bizkaia ta Bilbo'ko ekandu, ingurubegitara gauza ikusgarri ta agurgarrien susterrezko maitetzaille da. Orain bai, berarentzat ienengo Bizkaia, ta gero Euzkadi guztia. Ez buruzbera, oraingo erdikoak gura daben lez. Nok diño Bizkaia ta Bilbo kultura gaietan ez dala gauza aundirik. Esaiozue ori Unamuno'ri. Onak erantzungo dautzue bere Bilbao'ri abesti zoragarriaz (Canto a Bilbao de Unamuno). Bizkaia, Bilbok kultura danetariko andra-gizonezko ospetsuak sortu dauz. Musikalariak emen ugari ta goimallakoak doguz. Onein artean urrengoetxea. Nok ez dauz entzun bere "bilbainada" ta Athetiko ri ereserkia ta beste abesti ugari ta goi-argiz ederrak? Gaur egunean txikianak be ba-dakie abesten Erramillate, Erramillate, desde Santurce a Bilbao, hay un paraje en Bilbao, adiós bilbainito, adiós.

LAU URTEKO NEURE ibillerak (II)

Denpora aretan gudea baiño beste zer esanik eta buruausterik ez zan. Lenengoan uste zan baiño geiago luzatzen joian; baiña luzatu edo ez, ez geunkan ezpairik nor izango zan irabazle. Madrid'ko Gobernuak galdu eikeanik bein be ez jakun burura etorri.

Baiña kañoi danbadak entzuten asi giñan Iraillean sartu giñanean. Franco'ren gudariak Irun aldera eldu ziranean konturatu giñan zeintzuk aurrera egiten eben. Ta kezkatzen asi nintzan. Izkillua eskuetan artzeko gogo andirik ez neukan. Beti izan naz bildurtia ta bizia galtzeko arriskuan sartzeak ikarea emoten eustan. Gaztea nintzan baiña asko pentsau barik zoro-moro ez neban izkillua eskuan artuko, orretara iñok bear-tu barik.

Donostia frankotarrak artu eben aurreguneko gabeen ikusi neban gudea gaiñera etorkigula ta geuk be laster norabait alde egin bearra izango genduala. Ta nora urten Bizkaia alderuntz bertan ez senide ez adiskiderik eukita? Poltzikoan bear aiña eroateko moduan egon bagaña be gatxerdi. Orduan San Jun Txurru ondoan, bide-zabal aldera begira bizi nintzan (ortik nire idazle lenengo denporetako Iturri-ondo izen ordea) ta oean sartuta laster, erretiradan etozan berebillak igaroten asi ziran, geratu barik gau guztian. Ta neukan buruausteagaz lorik ezin eginda gau guztian oean jira ta bira nenbillela, egun sentian, atea jo eben: dan, dan. Nortzuk eta ziran atea iragi geuntsan eta Donostia'n bizi ziran lengusu bi ziran: Santa Cruz Etxaburu'tar Teodoro ta bere anaia gazteagoa, Rafael. Frankotarra igesi etozan; Igeldo'tik Mendizorrotz zear Orio'raño oiñez etorri ei ziran, eta

gero kamioe batean sartuaz Ondarru'ra. Franco'ren gudariak goiz aretan zirala Donostia'n sartzeko esan euskuen.

Bein gauzak onenbestera eldu ziranean gauza bat bakarrik neukan buruan: Prantzia'ra iges egin. Osaba bat, aitaren anaia, Donato, neukan Ziburu'n, Europa'ko lenengo gudea baiño lenagotik ara joanda, arrantzara. Bere emaztea, Garalde'tar Maria be ondarrutarra zan; ez euken seme-alabarik.

Ez geunkan artu-emonik osa-beagaz. Amaika urte ziran aita ilda geunkala ta arrezkero osaba noizean bein etorten zan Ondarru'ra baiña gurera ez zan etorten eta kalean-edo ikusten genduan baiña ez giñan ausartzen berari arpegia emoten. Baiña ez nengoan ni orduan kopletarako; ezelan al baneban araxe joango nintzan.

Lengusuak Donostia'tik etorrira urrengo domekan, gau aretan Toba'neko itxasontzi bat, arrantzakoa, Prantzia'ra joiala jakin genduan; eta Lorentzo koiñatuak, ori entzun ebanean, gu antxe joateko modua egitera urten eben. Ta laster zan etxean itxasontzi aretako jaube ta lemazain Paulo Toba'gaz (ezizena au) berba eginda. Paulo'k zirudianez ixillean nai eban erritik urten eta lenengoan gogo gitxi erakutsi ei eban gu ara eroateko, baiña nire koiñatuaren ekiñari ezetzik ezin emon eta azke-nean be, joan geintekezala esan eutsan.

Lau lagun joango giñan: lengusu biak, Jauregialzo'tar Jose txistularia ta neu. Biderako jaki apurra ipiñi euskuen, kontserba ta abar eta gabeko amarrak inguruan urten genduan etxetik. Ez neban uste orduan, lau urte andi igaro arte ez nintzala biurtuko etxera!

Jenderik gitxien ebillen bide ta baztarretatik zear joan giñan kaira. Gaiñera, ziran argi apurrak be amatauta egozan gudea zala-ta. Olan bada, ia iñor ez genduan ikusi itxasontzirako bidean.

Itxasontzia egoala uste genduan tokira eldu giñanean ez zan ezer entzuten bertan eta didar egin genduan. Iñok ez euskun erantzun. Baiña moillatik bigarren edo irugarren egoan itxasontzian ixilka bada be berbotsa entzun genduan eta geiago barik salto egin genduan bei samar egoan itxasontzira eta aurrera joanaz eldu giñan Prantzia'ra eroango ginduzanera. Iñok ez euskun barbarik egin, eta jaubearen aginduz giñoiazala esan genduan, nai ebanak entzun eian.

Gu ara joan orduko jendez bete- ta egoan itxasontzia. Oraindik beste banakaren batzuk be etorri ziran; eta gerotxuago, lemazaiña ontziratu zanean, gertutu giñan urteteko. Moilla musturrean gudariak (milizianoak) egozan ta kaitik urteteko eragozpenak ipiñiko euskuezan bildur zan lemazaiña, ta ezer itanduten ba eben, arrantzara joiala erantzuteko ustea eban. Ta ori esan al izateko jendea gitxitu bear zan kubieta gaiñean. Illun egoan eta ia ezer ez zan ikusten; ta gazteai kubieta pera sartzeko agindu euskun lemazaiñak barra musturra igaro arte ta alantxe egin genduan. Ez euskuen jaramonik egin.

Gitxienez berrogetamar lagun giñoiazan, geienak mutil gazteak eta gizon gazteak. Andra bat bakarrik joan zan, bere umeagaz. Andra a Txomin Agirre euskal idazle ospetsuaren illoba Teodora zan. Ondarru'tik urtenda, Bizkai alderdira jo eban itxasontziak.

Lenengoan Gipuzkoa ta Bizkai'ko mugan dagoan Kategori'tik

Arrigorri'rainoko bidea erretiradan etozan beribillen argiz beteta ikusten zan, eta toki a agirian euki genduan denpora guztian araxe begira egon giñan.

Geldi-geldi giñoiazan. Lenengoan ba-genduan zer esana, baiña gero loak artu-edo, beintzat, norbaitek esnatu ninduan Matzaku azpian (Matxitxako) gengozala esateko. Alantxe zan; gaiñean geunkan Matzakua bere argi otzartada indartsuak jaurtiten. Matzaku'ko argi dtzartadak bein baiño geiagotan ikusitan nengoan, baiña bat-batean ain urretik eta gora-bera aretan ikusteak arrarea egin eustan.

Antxe artu eban itxasontziak Prantzia'ko zuzenbidea.

Matzaku'ko argia ikusteko esnatu ninduenetik aurrera ez dakit lorik egin ete neban gau aretan. Baiña beste onegaz bai gomutaten naz: Goizean argitu zanean ez zala liorrik ikusten. Goian zerua ta beian itxasoa giñoiazan. Bidean ez genduan itxasontzirik arkitu; urrunetik keiek ikusi bai, baiña besterik ez. Orduko itxasontziak geienak ikatza erreaz ibiltzen ziran; geurea be bai.

Eguna argitu ta geroago apaxuak itxasora jaurti zituen jateko atunik edo atrapauten ete eben ikusteko ta iru-lau atrapau zituen. Ta bat edo beste egosi ta ez olio ta ez ezer, ogia bailitzan jan genduzan. Sagar txiki bat baiño andia-go ez zan atun zatitxoa izan zan igande gabetik martizen eguardi inguru arte nire ta beste guztien aotan sartu zan jaki guztia. Guk ba-geroan jaki apur bat baiña gure maletak itxasontzi barruan sartu euskuezan eta ez genduan iñori ezelango lanik emon nai. Gaiñera, gu jaten eta besteak guri begira egoterik ez genduan nai.

gizon bat ebala, ta ataria ta arrizko mailladi andia jendez bete genduzan.

Bereagaz bizi al izateko aiña poltzikoan ez eukanak senide (aide) edo adiskideren bat bear eban bere jaube egiteko, aske urten nai baeban. Bestelan, ez eukan kalera urteterik, ez eukan askatasunik. Orduantxe ziran kontuak! Ni neu ez nintzan asko estutu orregaz, osaba bat neukan an da. Baiña asko, ez diru ta ez iñor, agintariak eroaten eben tokira joan bear izango eben. Poliziaren ezetza entzun ostean barrura sartzen ziran batzuk; beste batzuk kalera urteten eben pozik. Batek Socorro Rojo Internacional agiria atara eutsan baiña poliziak irri-barre egiñaz atzera biurtu eutsan gizajoari ta an atzeratu zan a be.

Nik etxetik urteteen, estutasunean, lenengo eskura etorri jatan paperean, gure erriko uraren agiri edo fatura baten atzean, artuta neroian osabearen zuzenbidea:

Donato Echaburu
Rue Agorette
Gouchour Baita
Ciboure. B.P.

Poliziaren ondoko gizonak erderaz egiten ebala konturatu nintzan eta gero jakin neban ez Isaak Lopez Mendizabal euskaltzale andi ta argia zan bere aberkideai laguntzera urreratuta.

Nire lagun Jose Jauregiarri'k Ziburu'ko arrantzale baten zuzenbidea emon eutsan poliziarri ta beste barik laga eutsan kalera urteten. Ondoren lengusu biak urreratu ziran poliziarengana. Don Ambrosio Zatarain'en laguntasuna eukela esan eutsen. Jaun au, gu lez ara joandako emengo emengo bat zan. Egia zan Zatarain onen laguntasuna eukena edo izango ebena, baiña

Gu itxasontziko atze-atzean giñoiazan, estanpan, erdi jarrita ta erdi etzunik. Erdal abestiak polito abesten zituan bat egoan gure artean, Aranburu'tar Jose Mari, Kantaleko ezizenez. Ta bateko abestiak eta besteko kontuak, igarri barik joiazan orduak.

Arratsaldean liorra agertu zen, mendirik izan ez eta goruntzko gitxi eban lurraldea, itxasotik gora gitxi nabarmentzen zana. Sarritan entzunda neukan Kontis'ko argi etxea geunkan zuzen-zuzenean. Ondarru'ko arrantzaleentzat, Pontis. Itxurea zanez, Matzaku'tik arakoxe zuzenbidea artu eban. Liorra urreratu genduan, geldigeldi eskuma aldera bira andia egiñaz Bidasoa andiko Euskal Erri aldera jo genduan eta gaberdi inguruan Donibane Loitzun'go kaian sartu; ta ondartza aurreko zabalean geratu ta zerbaiteri lotu itxasontzia bertan gaba igaroteko. Gu lez joandako beste itxasontzi bi edo iru euki genduzan alboan.

Ogetalau ordu inguru egin genduzan Ondarru'tik Donibane'ra. Bide ori bear dan lez eginda laubost orduan egitekoa da; edo gitxiagoan gaurko ontziak, guk egin genduan birearen zabala!

Goizean kaiako moillara urreratu giñan eta bereala liorrera urten. 1936'garren urteko Iraillaren 23'a zan. Ain zuzen, neure eguna, ogetiru urte beteten nituan. Sasoi ederra!

Txertatutera eroan ginduezan udaletxera ertzaiñak eta gitxienez ordu bi egin genduzan bertan danok txertatu ta agiriak erakusten, jentetza andia batu giñan da. Ta alako baten urteteko agindu euskuen. Baiña goiko areto aretatik urten arren kalera urteterik ez egoan. Beko burdiñezko ate ondoan polizia bat egoan, alboan

bera ezezaguna zan poliziarentzat; baiña orduan Lopez Mendizabal'ek urten eutsen laguntzen: Zatarain Endaia'n egoala alako edo olako hotelean esan eutsen. Poliziak, ori entzunik, laga egin eutsen urteten.

Andik laster neu nengoan polizia aurrean. Osabearen zuzenbidea eukan ingi edo papera itxura bakoa iruditu jakon-edo, izan be alan zan da, ez eustan urteteko baimenik emon. Ta niri ezer esan barik beste bategana zuzentzen zala ikusirik estutu egin nintzan. Nire lagunak an seniderik euki ezda kalera aske joiazan ta niri, aitaren anaia an bizi ainbat urtean eta laga ez. Nik ez dakit zertzuk esan nituan neure estutasunean. Beintzat azkenean be urten al izan neban lagunen billa.

Itxasontzian joan giñanetatik geienak ezin urten izan eben. Beste askogaz batera trinketera eroiezela ikusi nituan, gero Mediterraneo aldeko erritxu batera zuzentzeko. Ordutik aste bi ingurura barriro ikusi nituan danak Donibane'n, bat ez besteak, bizimodu a baiño Bilbo'ra joan naiago ebela ta. Ta an joan ziran Bilbo'ra. Zenbat bidar damutu ete jaken Prantzia laga bearra!

Areitatik Prantzia'n gelditu zan bakarra Aranburu'tar Jose Mari izan zan, "Kantaleko". Urte mor-doa egin eban berak an; munduko bigarren gudea amaitu arte, uste dot.

Prantzia'n Españia'ko diru paperak (paperezko diruak) ez ebela balioko ta batu al izan gen-

duzan zidarrezko ogerleko guztiak eroan nituan, berrogei inguru; diru paperik batik be ez. Ez ebela balioko? Obe neban saku bete diru paper euki baneu!

Poliziakoak aske laga euskue-nean lengusu biak eta ni osaban etxera joan giñan. Lengusuak bereala Endaia'rako bidea artu eben; baiña illuntzea baiño len, biurtu egin ziran, Zatarain jauna ez ebela arkitu ta. Ta antxe geratu ziran, osabanean. Euren ama ta osaba Donato bigarren lengusuak ziran, neure aita ta ama alkarregaz ziran lez.

Jaungoikoari eskerrak, gudako arriskuetatik kanpora gengoan!

KAMINAZPI

Euskalerritik mundura begira

URUGUAI

Maiz entzuten dogu irratiz eta maiz dakusgu izparringietan Uruguai'en izena. Izen gozoa eta mai-tagarrria euskaldunontzat; Uruguai'en sorkundetik an ibilli bait dira ugari gure jendeak.

1516'ean izan zan idorrea Uruguai, baiña ez zan an europatarrik sartu, 1574'an euskaldun arabar batek, Ortiz de Zarate'k, San Salvador izeneko uria eraiki eban arte. Ala ta guztiz, 152 urte luzeetan ale batzuk bakarrik izan ziran europarrak lurralde artan.

152 urte oiek igaro ostean, beste euskaldun batek "Zillar-Ibar" edo Rio de la Plata'ko jaurle nagusi zan Zabala'tar Bruno Maurizio'k Montebideo sortu eban, 1726'ean, Zillar-Ibai aren ipar-ertzera jende geiago eraman naiean. Apika jendeak erantzun eutsan naiz Zabala'k uri artara joan nai eben guztiei aitorenseme edo "idalgo" izena eskeiñi. Ez noski Uruguai toki atsegiña ez dalako!

Lurralde txikia. Egoamerika'ko Laterririk txikiena: 186.926 kilometro laukoi; zelaiez eta muiño txikiez beteak. Mendi aundirik ez dau. Aundiena, itxasgaiñetik 500 metrokoa: Cerro de las Animas: Animien Muiñoa. Ia 4 milloi bizi dira gaur an. Orduan... ia iñor ez. Lur aberatsa da abere-aziketarako eta nekazaritzarako. Eta lur aberatsa eta osasuntsua zan orduan ere, baiña borrokalaria gogorrek ziran bertan bizi ziran inditarrak; lurraldearen askatasuna adortsu zaintzen ebenak.

Orain dala 30'en bat urte Laterri aberatsa, aurretatua eta paketsua zan Uruguai; Iberamerika'n bikaiñena.

Baiña ez da beti orrelakoa izan. Alderantziz, 1810'ean askatasunaren alde jeiki zan ezkerro, 1904'ean Aparizio Sarabia Uruguai'ko azken iraultzalaria borrokan erailla izan zan arte, iraultza, matxinada eta gudu artean ez eban Uruguai'ek ia pakeunerik ezagutu.

Askatasuna lortu bezain laister, Arjentina'ren aurka, Brasil'en aurka eta Uruguai bertako inditarren aurka jartun bear izan eben gudian Errepublika txiki aren sortzailleek.

1827'an onartuarazi eutseen arjentindarrei eta brasildarrei Urugai'en askatasuna, eta inditarren aurkako gudua inditar aiek danak illaz edo atzerrira bidaliaz amaitu eben. Gaur ez da inditarrik Uruguai'en.

Esan dogun lez, euskaldun asko joan izan da Uruguai'era, eta eusko-odoleko jende asko igo da an eginkizunik garaienetara. Baita Errepublika'ko lendakaritzara ere. Ona lendakari euskotarren artean ospetsuenak:

1835: Imanol Oribe. 1860: Berro, jatorriz gipuzkoarra. 1868'z gero zazpi lendakari izan ziran amar urte zaratatsuen epean; aietako bat, Agirre. 1872-75: Jose Ellauri. 1890-94: Julio Herrera naparra. 1894-97: Idiarte-Borda. Erailla izan zan. 1927-31: Juan Campisteguy benaparra. 1943-47: Juan José Amezaga. 1952-55: Martin Etchegoyen. Gero, Zubiria, Lezama, Zabala, Ien aipatuatako Etxegoien osteria, eta Artagabeytia, Urugai'ko Lendakaritzan egonak doguz. Euskotarra izan zan azkena era demokratiakoan, 1971'n aukeratutako lendakaria ere: Joe Maria Bordaberry. Gero, 1973'ean, diktadura ezarri eben an militarrek.

Korea'ko gudua amaitu ostean, erortze aundia izan eban munduko ekonomiak batez ere nekazari-tzaren arloan. Beste Ameriketako laterrien ekonomia bezela, jausi zan lurrera Uruguai'ena ere. Baiña Uruguai'ko jendea ondo bizitzen oitua zegoan. Langille-alkarte edo sindikatuak ez ziran une latz aren larritasunaz jabetu. Eten gabe sortu ziran Uruguai'en langilleen indarrezko lan-uzteak. Langilleekin alkartu ziran unibersitateetako ikasleak ere. Orduan azaldu ziran Tupamaro iraultza-indarkeri-odalzaleak ere. Ortaz baliatuaz, eta gazteleraz mintzatzen diran milaterek daben erria zapaltzeko gurariak eraginda, beren eskuetan artu eben Uruguai'koek agintaritzia.

Baiña gaur ez dot politikaz itzezin nai. Arjentina'n bezela, laister izango da Urugai'en diktadura menderatua. Aspertu bait da an ere erria militarrez.

Euskaldunon "razismo" edo endakeriaz mintzatu nai dot gaur.

Esan dautsut euskaldun asko joan zala Uruguai'era. Aietako bat Luis Iruretagoiena, Aia'ko semea, Tolosa'n ni bizi nintzan etxe berean bizia eta an illa.

Gudaroztean ez sartzearren, oso gazte zala iges egin eban Luix'ek Uruguai'era. Gizon eldua zala itzuli zan eta Tolasa'n ezkondu.

—Nola daiteke, Luix, orrenbeste urte Uruguai'en egonda gero, zuk erderarik ez jakitea?

—Ni, Urugai'en iparraldean, artzai, bakarrik bizi

izan nintzan ia beti; mendian. Maiz alkartzen nintzan adiskide batzuekin, baiña aiek ere artzaiak eta euskaldunak ziran danak. Jai aundietan amabost-amasei biltzen: Danok euskaldunak. Bizkaitarrak, gipuzkoarrak, prantzes-euskaldunak, Euskalerra guziko jendeak. Bi beltzak ziran. Baiña euskaldunak! Brasill'etik umetan beren gurasoekin iges egiñak. besterik ez zekiten. Beltz-beltzak ziran biak. Baiña euskaldunak!

Nork esan dau euskaldunok endakerizaleak garala?

Latiegi'tar Bixente

ABEREAK ALKARTASUN BARRIAN (2)

13.425 // y 12

Camello (Mateo 23, 24)

Guias ciegos, que coláis el mosquito y os tragáis el *camello*!

Lei: Gidariitsuak, eltzoa irazten duzue: eta *kamelua* iresten. (Baiña Mateo 3, 4, *kamellu*, eta Mt 19, 24, Mk 10, 25 eta Lk 18, 28, *kable*).

Duv: Buruzagiitsuak, eltzoa iragazten eta *kamelua* iresten duzuenak.

Ol: Bide-erakusleitsuok, eltxoa iragazi ta *gamelua* iresten duzutenok!

E-B: Bide-erakusleitsuok!, edariak iraztean eltxoak artu ta *gabelua* iruntsiten dozuenok!

Caballo (Agerpena 6, 2)

Miré y había un *caballo* blanco.

Lei: Eta beha nezan, eta huná, *zaldi* txuri bat.

Duv: Eta ikhusi nuen; eta hara *zaldi* zuri bat.

Ol: Ta ikusi nun, ta ara *zaldi* zuri bat.

E-B: Begiratu ta *zaldi* zuri bat ikusi neban.

Asno-jumento (Pedro'ren 2.^a, 2, 16)

Un mudo *jumento*, hablando con voz humana, impidió la insensatez del profeta.

Lei: Ezen asto eme uztarriko batek voz humano minzaturik, reprimi zezan Prophetaren frenesia.

Duv: *abere* hezi mutuak, gizon bat bezala mintzaturik, sarrarazi baitzioen profetari bere erhokeria.

Ol: *Zamari* mintzul batek igarleari

giza-mintzoz itz egin ta asmakeri ua eragotzi zion.

E-B: *asto* mutu batek, giza-eraz berba egiñik, galerazo egin eban profetaren zorakeria.

Asna (Mateo 21, 7)

Trajeron el *asna* y el pollino.

Lei: Eta ekar zitzaten *astoa* eta umea.

Duv: Eta erakharri zituzten *astoa* eta bere umea.

Ol: *Astama* ta umea ekarri ta...

E-B: Astoama ta astakumea ekarri ebezan.

Pollino-borriquillo (Joan 12, 14)

Jesús, habiendo encontrado un *borriquillo*, se montó en él.

Lei: Eta eriden zean Jesusek *asto-ume ar* bat, eta iar zedin haren gainean.

Duv: Eta Jesusek aurkhitu zuen *astokume* bat, eta gainean jarri zitzayoan.

Ol: Iesu, berriz, *astotxo* bat idorota, gaiñean yarri zitzayon.

E-B: *Astakume* bat aurkiturik, Jesus aren gaiñean jarri zan.

Buey (Lukas 13, 15)

¡Hipócritas! ¿No desatáis del pesebre todos vosotros en sábado a vuestro *buey* o vuestro asno para llevarlos a abreviar?

Lei: Hipokritá, zuetarik batbederak Sabbathoan eztu laxatzen bere *idia* edo bere *astoa* mangederatik, eta eramaiten ederatera?

Duv: Itxura eder egileak, zuetarik bakhotxak ez othe du larumbat egunean aberetegitik laxatzen bere *idia* edo *astoa*, eta edaratea eramaten?

Ol: Azalutsok!, zuetan ez al-du edonork bere *idi* edo *astoa* larunbatean ukullutik askatu ta edatera ateratzen?

E-B: Azalutsok! Ez dozue guztiok zuen *idia* edo *astoa* zapatuz askatik askatzen, edatera eroateko?

Novillo (Lukas 15, 23)

Traed el *novillo* cebado, matadlo.

Lei: Eta ekarririk *aretze* gizona, hil ezazue.

Duv: Erakharrazue *aratxe* gizendua, hil zazue.

Ol: *Txekor* gizona ere ekarri ta il ezazute.

E-B: *Zekor* gizona ekarri ta il egizue.

Toro (Ebertarrai 10, 4)

Pues es imposible que sangre de *toros* y machos cabrios borre pecados.

Lei: Ezen imposible zen *zezenén* eta akerrén odolaz bekatuén kentzea.

Duv: Alabainan *zezenen* eta akherren odolaz bekatuen khentzea, ezin den gauza da.

Ol: Ezin bait-diteke *zezen* ta akherren odolez ogenak kentzea.

E-B: *Zezenen* eta akherren odolak ezin kendu daike pekatu-eta.

KEREXETA

IPUINAK APAINTZEKO MARGOZKIEN SARIKETEAK

*“Euskerazaleak Alkartea”*k, euskaldunen artean apainketarako marrazkiak egiteko zaletasun aundirik ez dagoala ikusirik, margolarien edo lan onetarako zaleak diranen artean sariketea egitea asmau dau.

Euskerazaleak Alkartearen Etxean (Colón de Larreategi 14, 2.^a, eskoia) ikusi daikez marralariak argitaratu nai diran ipuiñak txorta baten. Ipuin oneik argitaratzeko liburuaren azala eta barruko apaingarriak marratuko dauzan ertilaria edo orretarako zaletasuna daukana billatzen da.

Marralariak berak asmau bearke dau marrazkien neurria, margoak, zenbakia ta dana, ipuin bakoitxarentzat bat, naiz bi, naiz iru izan dautekezala, neurria zelakoa dan.

OINARRI-ARAUAK

1. Marrazkiak, 1985'ko urterilaren 31'rako, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean izan bearke dabe.
2. Marrazkiak izen ordeaz ezaugarrituko dira eta karta-azal baten barruan ekarri bearke da ezaugarri dan izen-orde ori eta benetako izena ta zuzenbidea.
3. Saria bat bakarra izango da, 100.000 pezetakoa.
4. Saridun marrazkiaren jabe EUSKERAZALEAK ALKARTEA geratuko da.
5. Ipuiñak euskal-girokoak diran ezkerre, marrazkiak be giro orretakoak izan bearke dabe.
6. Saria irabazteko gai dan lanik bat be agertu ezik, iñori emon barik geratuko da saria eta aurkeztu diran lanak jabeen esku geratuko dira.
7. Epai-Maiaren erabagia 1985'eko zezeillaren barruan agertuko da DEIA Izparringian eta ZER aldizkarian.

EUSKERAZALEAK


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez deroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.